

# ttipi ttapa

391



## Lesakako Kultur Etxerako dirurik ez **03**

Nafarroako Gobernuak ez dio aurtentzen dirulaguntzarik emanen Lesakako komentuan kultur etxea eta liburutegia egiteko proiektuari. Horrek kezka sortu du herrian.



## Juanma Jardin txapeldun **29**

Doneztebeko Juanma Jardin taldeak irabazi du Baztan-Bidasoko areto-futbol txapelketa finalean Elizondoko Goizalde Ostatuari 4-1 irabazi ondotik.

2005ko otsailaren 10a • XXV. urtea



**04** EUSKARAZKO TELEBISTAK NAFARROAN

**Zalantzazko etorkizuna  
azken zazpi urteotan  
gorpuztu den errealitatearentzat**

# MUEBLES AMETS



**larunbat  
arratsaldetan  
irekia**

**4000 m<sup>2</sup> erakusketa**

**Sarrera  
BERATik da**  
Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga  
**31789 LESAKA**  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE  
WEB ORRIA  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)



- **Sukaldeak**
- **Egongelak**
- **Logelak**
- **Bainugelak**

Natura koltzola

Latexaren erositasuna eta malguki-koltzoiaren sendotasuna

Elkarrizketa

140	80	90	105	120	135	150	160
200	2	2	2	2	2	2	2
200	2	2	2	2	2	2	2

# t tipi t tapa

## harpidetzak 05 tarifa berriak

- ESPAINIA \_\_\_\_\_ 28 €
- EUROPA \_\_\_\_\_ 40 €
- AMERIKA \_\_\_\_\_ 108 €
- Baztan, Bertizarana, Urdazubi,  
Malerreka, Leitza \_\_\_\_\_ 23 €
- Sara, Senpere, Azkain La Poste \_\_\_\_\_ 50 €
- Sara Edantegian eta okinekin \_\_\_\_\_ 40 €
- Bortziriak, Areso, Gaizqueta eta Arano—DOAN



alkorriketa • erreportaje • iritzia • herriz herri • kirola • agenda praktikoa • merkatu itikia • urtebetetzeak



## DATUAK...

- 2000. urtetik Lesakako karmeldarren komentu zaharrea kultur etxea eta liburutegia egiteko proiektu ezberdinak egin ditu Lesakako Udalak.
- Azkenekoak 3,7 milioi euroko aurrekontua du (lehenago 850 milioi pezeta) eta Nafarroako Gobernuaren Ondare, Kultura eta Liburutegi sailen oniritzia jaso du.
- Orain, ordea, 2005ean proiektu honetarako dirulaguntzarik ez dela izanen jakinarazi dute iruñetik.



Juan Fermin MITXELENA *Lesakako alkatea*

ARIZAGA, AITOR AROTZENA

## «Kultur Etxerako aurten dirulaguntzarik ez izatea adar jotzea iruditzen zaigu»

Aitor AROTZENA

2000. urtetik bueltaka zabilazte komentuan kultur etxea eta liburutegia egiteko. Aurten, ordea, dirulaguntzarik ez dela izanen diote Nafarroako Gobernutik...

Bizpahiru proiektu izan dira bortz urte hauetan, aldatzen joan direnak. Azken proiektuarekin hasi ginen eta dozena erdi bat bilera egin ditugu Iruñean, bertze pare bat Bertizen eta Agoitzen Cristina Arcayarekin eta hondarrean denak ados jarri ziren. Ondarea, Kultura eta Liburutegi sailtakoak. Azken proiektu horren arabera auditorioa sartzan zen kultur etxean, eszenalekua murriztua gelditzen zen, 70-75 metro koadrokoa, 170-180 eserlekurekin eta liburutegia gibelerago eramaten zen, berdegunea ukitu gabe. Denborarekin Lesakak auditorio handiagoa beharko du, baina komentuari erabilera emateko modua hori zen. Dirulaguntza izan genuen, nahiz auditorioa nahiz liburutegiaren proiektua egiteko. %30 eman zuten kultur etxearen proiektua egiteko eta %35 liburutegia egiteko. Hori galduta genuen, Kultura departamentutik ja-

**«Baimena ematen baldin badigute obra gure kargu hasiko dugu, baina beraien aldetik dirulaguntza emanen dutenaren konpromisoa lortu behar dugu»**

rritako baldintzak kontuan hartuz, hori pasatzen uzteko eta eurek komenio baten bidez proiektu guzira dena batera aitzinera eramateko modua lortuko zutela erran baitziguten. Arazo honekin joan den urtean hilabetero joan ginen Iruñera, nahiz Oninek gehiago joan behar dela erran. Dena konforme zen, eta orain erran digute dirulaguntzetan murrizketak izan direla eta ezin dela hitzarmena aitzinera eraman. Beraiengatik hainbertze gibeleratu ondotik, engainatuak sentitzen gara. Guziaren buruan 2005ean ez dugula deus dirulaguntzarik izanen, adar jotzea iruditzen zaigu.

**Diru arazoa da, edo bertzelako arazorik ikusten duzu erabaki honen gibelean?**

Egia da diru murrizketa ikaragarriak izan direla aurrekontuetan, kultura ar-

loan lotsagarriak. Ez dakit egitan hain eskas dabilzan diruarekin edo bertze gauzetan dirua gastatu eta hortik estutu nahi duten. Hainbertze bilera egin ondotik, ustez dena martxan zegoela, orain 2005ean dirurik ez dela izanen erratea... Gainera, ez dute heldu den urtean dirurik izanen denik segurtatzen. Noiz arte esperatu behar dugu Lesakan Kultur Etxearen obra martxan ikusteko? Errepideekin urteak eman ditugu esperoan eta orain herriko obrekin bide beretik segitu behar dugu? Lesakar bati zaila da esplikatzeko hainbertze urteren buruan eta proiektuetan hainbertze diru gastatuta, oraindik deus ez dela egin. Hasure gaude gai honekin.

**Dirulaguntzarik gabe bada proiektua aitzinera ateratzerik?**

Handik edo hemendik aitzinera egin saiatuko gara, esperantza hori kontu behar dugu. Baimena ematen baldin badigute obra gure kargu hasiko dugu, baina beraien aldetik dirulaguntza emanen dutenaren konpromisoa lortu behar dugu. Ezin dugu Lesaka neurri honetako inbertsioan sartu, dirulaguntzarik ez bada.



## TELEBISTA LOKALEN ESQUALDEAK ETA HIZKUNTZA EREMUAK

- IRUÑERRIA
- ZANGOTZA
- TAFALLA
- LIZARRA
- TUTERA

- EUSKAL EREMU
- EREMU MISTOA
- EZ EUSKALDUNA



2004ko martxoaren 12ko 439/2004 Errege Dekretuaren arabera, aurrerantzean bakarrik 5 telebista lokal izanen dira Nafarroan, mapan markatuta dauden eskualde bakoitzeko telebista bana.

## TELEBISTAK: MOMENTUKO EGOERA 2004.12.31



Nafarroako ikusentzuzeneko Kontseiluaren arabera, 10 tokiko telebista daude: Popular Televisión, TafallaTV, ValtierraTV, TeleCadreira, TeleCascañe, PeraltaTV, CarboneraTV, MilagroTV, Xaloa eta Ttipi-Ttapa.

## IRRATIAK: MOMENTUKO EGOERA 2004.12.31



Erakunde berak 28 irrati zerrendatzen ditu FM-ko irrati komertzial eta udal-irratien artean. Telebista lokalekin konparatuz, agerikoa da irratien hedapena koherenteagoa dela, bai kopurua, kokapena zein euskarak horiek denean duen presentziaren ikuspegitik.

## XALOA ETA TTIPI-TTAPA TELEBISTA

# Euskarazko telebista lokalak lizentzia eskuratzeko aukerarik gabe gelditu dira

**Eusko Alkartasunak eskatuta, otsailaren 15ean bilduko dira Nafarroako Parlamentuan Ttipi-Ttapa eta Xaloa telebistetako arduradunak eta talde parlamentarioen ordezkariak. Goiz eta arratsaldean eginon diren bileretan, «egoera azagutu eta etorkizunari begira egon litzazkeen soluzioak» aztertuko dituzte.**

## ttipi-ttapa

Joan den abenduaren 4an argitaratu zen Espainiako tokiko telebista digitalaren plan teknikoa indarrean jartzen duen Errege Dekretua. Horrela, telebista lokalaren egoera legala normalizatzeko 1995az geroztik bueltaka zebilen prozedura juridikoa, behin-betikoz bideratua gelditu da. Izan ere, plan tekniko honen bitartez zehaztu egin du Espainiako Industria Ministerioak autonomia erkidego bakoitzeko zein eskualde edo udalerrri-multzotan antolatu ahal izanen diren telebista lo-

kalak, eta horrekin batera, finkatuta uzten du 2008ko urtarilaren 1erako telebista lokal guztiak era digitalean emititu beharko dutela. Horik aurrera telebista lokalek ezin izanen dute gehiago sistema analogikoan emititu.

Bitarte horretan, autonomia erkidego bakoitzaren esku geldituko da Ministerioak markatu dizkien demarkazio horietan emitituko duten telebisten kontsesio administratiiboak esleitzea. Nafarroari dagokionez, abenduaren 24an zabaldu zuten gobernuak Foru Erkidegoak onartuta dituen 5 eskualde horien



artean emanen diren 5 kontzesioelara proposamenak aurkezteko epea, eta otsailaren 7an itxi zen epe hori.

#### NAFARROA PROZESUA ABIATU DUEN LEHENENGOETAKOA

Alpitu 5 kontzesioek 5 urteko iraupena izanen dute eta ezin izanen dira eskualdatu bertze onuradunen alde.

Bertzalde, Madrilen joan den azaroan abiatu zuten esleipen prozesua, eta 11 demarkazioen artean 34 kontzesio esleituko dituzte. Galizian 84 kontzesio banatuko dituzte 21 eskualde edo demarkazioen artean, eta prozesu berean, bertze 132 FM lizentzia ere esleituko dituzte.

#### UDAL ETA MANKOMUNITATEEN EZADOSTASUNA

Nafarroan prozesu honek dituen lege-hausteak aztertuz Euskara Kultur Elkargoak bosten juridikoa prestatu du, behar denean lagungarri izan da. Era berean, euskal eremuko udal eta mankomunitateek (Sakana, Larraun, Ultzama, Leitzaldea, Malerreka, Baztan, Bortziriak...) «Plan Teknikoari buruz euren ezadostasun osoa agertu dute». Hala, udal akordio eta erresoluzioetan eskatzen diote gobernu zentralari «indarrean dagoen legeriaren arabera, tokiko telebistetan hizkuntza aniztasunaren babesa eta garpena laguntzen duten neurriak betetzea» eta Nafarroko Gobernuari «gobernu zentralari hasieran egin zion eskaera berrestea».

#### GAIA PARLAMENTUAN AZTERTUKO DA OTSAILAREN 15EAN

Eak eskatuta, bi telebistetak ordezkariek Parlamentura joateko gonbidapena hartu dute. «euren egoera ezagutu eta etorkizunari begira egon litezkeen soluzioak aztertze-ko». Lehendik, azaroaren 11n, Aralar-ek Irabarren kontseilariari azalpenak eskatu zizkion, eta orduan Parlamentuan izandako adierazpenetan, alderdi guztiak ahobatez berretsi zuten Industria Ministerioari bi demarkazio gehiago eskatzea.

## DISKRIMINAZIOA

# Nafarroako udalerrien %83a eta populazioaren %31 tokiko telebista digitaleko zerbitzu publikorik gabe

EUSKARARI OFIZIALTASUNA ONARTZEN ZAION EREMUKO UDALERRI GUZTIAK DAUDE EGOERA HORRETAN

Momentuz, Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera, Nafarroan ez dugu aukerarik izanen erabat euskaraz arituko den tokiko telebistarik izateko, ez bederen legez onartutako kontzesio bidez. Izan ere, afera honek momentuz «euren telebista lokala izateko aukerarik gabe» utzi ditu Nafarroako 225 udalerrri, eta multzo horretan daude "euskal eremuko" udalerrri guzti-guztiak. Bakarrik 47 udalerrri (%17) baliatu ahal izanen dira Tokiko Telebista Digitalaren zerbitzuaz.

#### KONPARAZIOEK «MIN EGITEN DUTE»

Demografiaren ikuspegitik, hau da, zerbitzuaren onuradun izanen den populazio-kopuruaren ikuspegitik aztertuz gero, Espainia/Nafarroa konparazioak datu mingarria uzten du begibistan: Espainian zerbitzurik gabe geldituko den populazioa %13koa den bitartean, (Andaluzian %8) Nafarroan populazioaren %31 geldituko da tokiko telebista digitaleko zerbitzu publikorik gabe. Doublea baino gehiago.

Bertzalde, gainerako autonomia erkidegoetan ez bezala, demarkazio bakoitzeko kontzesio bakarra esleituko da Nafarroan. Hau da, gehienez ere 5 tokiko telebista digital izanen dira etorkizunean. Kontuan hartu behar da 2004ko martxoaren 12an Zientzia eta Teknologia Ministerioak Plan Teknikoa onartu zuenean, «Espainian 1.000 emisora baino gehiago izanen direla» adierazi zuela. Ondorioz, zenbait autonomia erkidegotan demarkazio bakoitzeko 4 kontzesio edo gehiago esleituko dituzte. Nafarroan 1 bertzerik ez.

#### AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN ONARTUTAKO ESKUALDEAK

	Hasieran	Azkenean
Andaluzia	58	62
Aragoi	14	16
Asturias	8	8
Balear Irlak	7	7
Gaztela - Leon	21	21
Gaztela - Mantxa	25	26
Kantabria	6	6
Katalunia	20	24
Kanarias	11	11
Extremadura	17	17
Galiza	20	21
Errioxa	3	3
Madril	11	11
Murtzia	8	8
Nafarroa	5	5
Euskadi	13	15
Valentzia	17	18
Zeuta	1	1
Melilla	1	1
<b>DENERA</b>	<b>266</b>	<b>281</b>

Hasieran, 2004ko martxoaren 12an onartutako plan teknikoaren arabera, 266 eskualde zeuden onartuak. Azkenean, demarkazio gehiago eskatzeko aukera zabaldu zuen Industria Ministerioak, eta 15 eskualde berri onartu ziren joan den abenduko Errege Dekretuaren bitartez. Zerrendan ageri dira autonomia erkidego bakoitzak definitiboki dituen demarkazioen kopurua.

#### KOMUNIKAZIO ENPRESA HANDIAK MERKATU LOKALA BEREGANATZEKO PROZESUAN DAUDE BURU-BELARRI

Localia, Vocento, TeleCinco, COPE eta antzeko enpresak dira kontzesioak bereganatzeko aukera gehien dutenak. Publizitate lokala irabazteko, interes politikoak, enpresa egitura zentralizatuak eta programen edukiak (emisora guztientzat berdinak) dituzte bere alde. Konparazioan, arraz ezberdina da tokian tokiko komunikazio-enpresa tiki eta independenteen egoera.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Comision Paritaire: En cours

TIRADA (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta: 12

E-31700 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZALEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. PRESIDENTEA (Président): Pello Apeztegi. KUDEATZALEA (Gérant): Joxemari Irigoin. ZUZENDARIA (Directeur de publication): Aitor Arotzeta. PUBLIZTATEA (Publicité): Kulturkan, SLU ADMINISTRAZIOA (Administration): Amaia Gola. BERRITZALEAK (Collaborateurs): Mikel Illarregi, Esteban Arotzeta, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestua, Iban Itasi, Franck Dolosor, Margari Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Itintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Otegarai, Nerea Mixaltorena, Aitor Arotzeta, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakek Gofi, Rakek Amigo, Iñake Kontsumitzaileen Elkarte.

INPRIMETZEA (Imprimeur): Gertu. ERAKUNDE LAGUNTZALEAK (Avec la participation de): Bera, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereno udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sarjak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### ...eta Goizuetako karretera?

Ezkurrako gainetik Donezteberako errepidean ez dakit zenbat milioi gastatzera omen doa Nafarroako Gobernuak, eta arrunt ongi iruditzen zaigu. Aranoko Kaxetarik Aranora bitarteko errepidea zabaldu behar omendute, eta arrunt ongi iruditzen zaigu. Eta Goizuetakoa? Aitortu behar da nahiz Leitzarako errepidea, nahiz Hernanirakoa ez daudela orain hogei urte bezala, baina hobekuntzak oso pixkanaka eta oso mantso doaz. Orain dela laupabost aste metro gutxiaren barruan bi kotxe joan dira errekarara Ollin inguruan. Nik ez dakit zeineri esker onik atera ziren istripuak jasandako gazteak. Arrisku handiko hainbeste leku "quitamiedos" edo babesik gabe daude oraindik. Pasatzen atera ziren diren herriarrak, gehienak zaharrak, bizi arrisku dabilta egunero. Errepidea bera estua izateaz gain, jende gehienak pasorako biltzen duen ibilbidean (herritik Sanjuanbururaino) bi kurba arriskutsu daude, baina oraindik hor inor akabatu ez denez, bere horretan segitzen dute. Gure karrieteran mugitzen den kotxeen kopurua murriz samarra izanik, autobide eder bat sekulan izanen ez dugula "onartua" daukagula esan dezakegu, baina Nafarroako Gobernuak atentzio handieagoa eman beharko ligukeela iruditzen zaigu.

### Presoak borrokan, gu ere bai!!!

Gutun honen helburua Euskal Preso politiko kolektiboak abiatu duen borrokaldiaren berri ematea da. Borrokaldiak, Espainiar zein Frantziar gobernuak Euskal Presoen aurka daramaten politika itogarria salatzea du helburu. Alde batetik oinarriko esku-bideak (kartela barrukoak) errespetatzea eta bertetik eskubide politikoaren aitortza eskuratzeko borrokaldia litzateke. Aldari nagusia "isolamendu politikaren aurka Euskal presoak Euskal Herrira orain!" izango da. Borrokaldia urtarilaren 3an hasi zuten munduguztiaz zehar dispartaturik dauden preso politiko guztiak planto bat eginez. Egun bat beranduago, urtarilaren 4an, kolektiboa osatzen duten preso guztiak, txandaka egingo duten txapeoari hasiera eman zioten, hiru hilabete iraungo du txapeoak.

Gauzak horrela, Amnistia aldeko mugimendutik dinamika hau indartze aldera plangintza bat osatu dugu. Gure helburua preso aldarriak eta borrokaldiaren nondik norakoa gizaritaratzea litzateke. Horretarako, mobilizazio desberdinak, batzar informatiboak, propaganda, borroka eguna... eta bertze hainbat gauza antolatze asmotan gabilta. Informazio orri honen ematen digun aukeraz baliatuz, gonbitea luzatu nahi genioke irakurleari ahal duen neurrian eta tokian preso politiko aldeko dinamikan parte hartzeko. Guk behintzat argi dau-

kagu, Euskal Herri askea nahi dugu eta bide horretan nahitaezkoak zaigu askatasunaren aldeko borrokan dabilzaten indarra, zuena adibidez, eta zer erranik ez preso eta iheslariena. Ez dezagun aukera hau pasatzen utzi, orain arteko erroak zailak izan dira eta hau ez da erraza izango, baina guztion bul-tzadarekin lortuko dugu.

Gure aldetik bertzerik ez, animo eta eutsi! Bere presoak ahazten dituen herriak ez baitu etorkizunik.

### Lesakako Amnistia Aldeko Mugimendua.

### Bizitzeko hil beharra dago?

Orain dela gutxi zeri hiltze bati buruzko erreportai bat ikusteko aukera izan du jendeak TTI-PI-TTAPA Telebistan. Honi buruz zerbait erran nahi dut. Nahiz eta ez ditudan inola ere konpartitzen ekintza hauek, hala ere errespetuz errespetatzen saiatzen naiz.

Nik honekin ez dut inor mindu ezta kritikatu nahi, soilik beste ikuspuntu bat erakutsi eta zer pentsatu eman jendea-ri.

Garai batean, Euskal Herrian jatekorik etze-goenean animaliak handitzea eta hiltzea normala zen eta ziurrenik luxu bat izanen zen aukera hori izatea. Baina gaur egun egoera arras diferentea da eta animaliak hil gabe bizi gaitzeko. Animaliak sentitzeko gai dira, bai sufrimendua eta baita plazerra. Horregatik etzait bidezkoa irudi-

etzen animaliak gure irabazietarako erabiltzea. Aspalditik datorren kostumbre edo ohitura bat izateak ez du justifikatzen ekintza hauen iraupenak. Ohitura aunitz daude ez direnak justuak. Ez da bidezkoa inori sufrimendua eragitea, hori saihesteko aukera baldin badaukagu eta berdin du gizakia ala animalia izan. Norbait errespetatzeko gauza garrantzitsu bakarra bere sentitzeko gaitasuna da. Eta nik uste hori argi eta garbi antzematen dela animalietan, nahiz eta ez duten hitzen bidez azaltzen.

Orduan zergatik mantentzen dira ohitura hauek? Animaliak ez direlako gure espeziekoak? Bazterketa hori Espezismoa deritzogu, gure espeziekoak ez denez bazterte eta erabiltzea.

Arrazakeria eta sexismoaren aurkakoak baldin bagara gauregun, zergatik oraindik mantentzen dugu Espezismoa, jakinda bertze zapalketa bat gehiago dela?

Itziar.



## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara 2005-01-26

«Batzuetan ez nuen denbora aski ikasteko. Batzuetan estuago ibiltzen zara; entrenatzeko goiz jeiki behar duzu eta gero, siesta egin beharrean, liburuak. Ikastea ongi dator beti gauza berean ez pentsatzeko eta, alderantziz, birindularitzak balio du liburuetatik deskonektatzeko».

«Suerte handia izan nuen ikaskideekin, apunteak eskatu eta ez zidaten inoiz aitzakirik jartzen. Ez bazen beraiegatik ez nuen karrera aterako».

Jon BRU  
Berako birindularia  
Gara 2005-01-26

«Nire lana oso polita da, jendea eta toki asko ezagutzen ditudalako, baina gogorra, etxetik kanpo denbora aunitz pasatzen dudalako. Azken branpa gainera nahiko neketsua izan da; guztira 120 egun igaro ditut etxetik kanpo. Lanak bere alde ona ere badu: urte hasiera honetan lau hilabete izango ditut ezer egiteke, guztia grabatuta dagoelako. Hala ere, ez naiz geldirik egoteko jaioa eta orduan ere sufrituko dut».

Julian IANTZI  
ETBko aurkezlea  
ZABALIK 2005-01-27

## • 11 GALDERA LABUR •

**Tuku-ketako 500 galderen erantzunak ezagutzen dituzu?**

Galderen arabera, geografia eta historia ez dira inoiz nire fuertea izan.

**Zein da gehien harritu zaituena?**

Ze historia luzea eta zabala dugun. Jakintsua izan behar da Tuku-keta jokua irabazteko?

Helburua ongi pasatzea da (aski eza-guna den esaldia, ez da hala?).

**Tuku-tukutat duzu zure burua?**

Gauza aunitzetan bai, tuku-sena konturatu gabe atratzen zait, zer egin behar dugu bada?

**Xorroxin Irratia, kantu txapelketa...**

**Ahotsa da zure lan-tresna?**

Ahotsa baino hizkuntza dela erranen nuke. Bertze batzuetan taberna zulo-loko mostradorea.

**Eta zerbait berezia egiten duzu ahotsa zaintzeko?**

Tabakoarekin birgeriak.

**Bizitzeko, Berroeta edo Iruña?**

Edozein herri bizitzeko, Iruñe desinibitzeko. Berroetan gustora nago.

**Kontatzen ahal den bizio bat?**

Bizioak eta hobbyak ez dakizkit neur-tzen, kalterako jakina. Zera-mika-

rekin trebea naiz, baina bizio aunitz ditut.

**Haurrendako diska batean kantatu zenuen, orai bertzea prestatzen...**

**Gustoko dituzu haurrak?**

Ongi moldatzen naiz, bertzerik ez.

**Zureak edo bertzeenak?**

Dedio! nola gauden aitatasunarekin! Zertaz ote? Nire ilobak ikaragarriak dire, 13

**Amets bat?**

Amets batean bizi naiz, baina hankak lurrean. Zerrendatzen hasiz gero bakantzak hartzen ahal dituzue, aldiz-

kaniko orri guztiak beteko baini-tuzke.



**Fermintxo GARTXITORENA**

*Xorroxingo esataria eta Tuku-keta jokua-  
ren egileetako bat*



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrekak S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



## KULTURA

# Nafarroako Haur kantari txapelketan izen emateko epea otsailaren 14an akautuko da

Kanporaketa saio bat Doneztebeko Bordatxon egingen da martxoaren 12an

ttipi-ttapa

Otsailaren 19an abiatuko da Tafallako frontoian Nafarroako Euskal Kantuzaleen Elkarteak, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren babesarekin antolatzen duen haur kantari txapelketaren edizio berri bat. Gainerako kanporaketak Burlata, Altsasu eta Donezteben egingen dira eta finala Iruñeko Gaiarre Antzokian izanen da. Euskal Kantuzaleen elkarteak antolatzen du haur kantari txapelketa. Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroan euskaraz abesteko dagoen ohitura aberatsa mantentzen eta bultzatzen duen erakundea da. Honen eredu den Nafarroako Haur kantari Txapelketa haurrei espreski bideratutakoa, duela hamar urtetik goiti ospatzen da Nafarroan. Irakasleendako, kanta haurrak motibatuzko eta hezituzko tresna da, eskoletako ikasleak anima daite-



Binaka, banaka nahiz taldeka eman daiteke izena haur kantu txapelketan.

zen. Aukera paregabekoa da eszenatoki baten gainean zer sentitzen de ikasteko. Gainera, honako lehiaketek haur gehiagorekin batera parte hartzeko aukera bikaina eskaintzen diete, giro artistikoan eta bide batez, musikaren gelako heziketa teorikoa praktikaren bitartez ere

bultzatzen da. Beti ere garrantzitsuena parte hartzea da. Epaimahalkideak honako hauek izanen dira: Ion Irazoki Doneztebeko musika eskolako zuzendari ohia eta Donostiako txistulari bandan irakasle eta partaide, Ainhoa Santz doneztebarra eta Burlatako musika eskolako

irakaslea, Maria Eugenia kantu eskolako piano irakasle eta Mikel Juaniz Barañaingo musika eskolako irakaslea eta La Pamplonesako kidea.

Kanporaketa egiten den herri bakoitzean inguruko herrietakoek parte hartzeko lehentasuna berezia izanen dute

eta soilik puntuaketaren arabera, aurreneko gelditzen diren 20 partaideak, talde bikote nahiz bakarlari moduan aurkeztuko dira finalera.

Kanporaketa guztiak 17:00etan izanen dira honako data eta tokietan: Otsailaren 19an Tafallako udal pilotalekuan, otsailaren 26an Burlatako kultur etxean, martxoaren 5ean Altsasuko lortia kultur etxean eta martxoaren 12an Doneztebeko Bordatxo aretoan. Finala martxoaren 20an goizeko 11etan egingen da Iruñeko Gaiarre antzokian. Izen emateko epea otsailaren 14a arte irekia dago. Ezinbestekoa da abestiaren izena, egilea eta hitza eta kantari-musikarien izenak postaz, e-postaz edo faxez bidaltze helbide honetara: Kantuzaleen elkarteak, Joaquin Beunza 13 bis 1. pisua. 31014 Iruñea. e-posta euskokultur@terra.es, faxa 948382658 eta 948141812telefonoa.



**Harategia**

Eztegara 3  
Tfnoa: 948 630088  
BERA

**SAROB** SANDERS pentsuak  
**okindegia**

Eztegara 41 • Tel: 948 630 009 • BERA

**bortzirUDI**  
BERA  
KARTELAK  
KAMISETAK  
BISERAK  
TODERONK  
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI eta DISEINURAK  
Eztegara 28 Berritoa • Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**ZJ**  
**Zalain**  
jatebrea  
Hostala

14 logela,  
bainu eta TBrekin

Eztegara 14 • Tel: 948 63 09 07  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## 2004ko Nafarroako Enpresari izendatu dute Pello Martikorena

Ricardo Baroka eskolak 25 urte beteko ditu irailean

**Amaia eta Ainhoa**

Pello Martikorena, Conservas Martikoko zuzendariak "Negocios en Navarra" aldizkariaren eskutik eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren laguntzarekin 2004ko Nafarroako Enpresaria izeneko saria jaso zuen urtarrilaren 25ean. Bera-ko lantegiekin batera, Zuhigako granjan, egun bakarreko ahateak hazi eta gizentzen dituzte; Larrabetzuko (Bizkaia) Delicass enpresa ere berea da, 2002an Campofrioni herena erosi zionetik. Urte berean Cadizen Selectos de Barbate enpresa erosi zuen, arraina lantzeko eta honetaz gain, Ibardinen benta bat eta Dantxariñan bertze bi baditu. Bere azken proiektua Leringoa da, Agropecuaria Lerin enpresaren sorrera. Momentuz hiltzea eta zatiketa aretoa martxan daude eta bere helburua gizentzeko granjak eraikitzea da, 3 milioi ahatetara iritsi arte. Narbarten ere janari prestatuen enpresa egin nahian dabil. 30.000 metro koadroko lurrak erosiak ditu eta bertako produktua landu nahi ditu. Proiektu hau 2007an



Pello Martikorena, Nafarroako 2004. urteko Enpresaria, Alkaiaga Industrialdean duen lantegiaren aitzinean.

martxan izanen da eta 50 langile inguru arituko dira lanean, gehienak emakumeak. Hemendik bi urtera ere, Los Arcos/Urantzian beste granja bat irekiko du. 15 langile arituko dira eta bere helburua da ermetzeko puntuan dauden arraultzeak ekarri eta inkubadoran edukitzea, horrela ahatea Nafarroako produktua izateko. Momentuz Urantziaiko Udalak 409.000 metro koadroko lurrak utzi ditu. Gaur egun, guztira, 500 langile inguru izanen ditu eta bakarrik Martikok (bentak,

Delicass eta Barbate kontutan hartu gabe) 30 milioi euro fakturatzeko ditu. Iturjin izatetik aipatutako guztia edukitzera iristeko lan handia egin dute Pello Martikorena eta bere familiak. Horren fruitua, ibilbide guzti horregatik lruñean jasotako saria izan da.

### Ricardo Baroja Eskolak 25 urte beteko ditu

Irailean Ricardo Baroja ikastetxeak 25 urte beteko ditu. Data hori behar bezala ospatzeko Batzorde bat eratu da guraso eta ira-

kasleen artean. Baina Batzorde horretan guraso eta ikasle ohiek ere parte hartzea nahiko lukete eskolakoek. Horregatik, Ricardo Baroja ikastetxetik pasatu diren guztiei dei egiten diete datorren otsailaren 15ean, asteartea, 16:30etan beraiekin batera parte hartzeko. Horretaz gain, argazki erakusketa egin nahi dute, eta horregatik antolatzailerik etxean eskolako argazki zaharrak izanez gero eramatea eskertuko lukete, erakusketa ahalik eta osoena izateko.

**FLASH**

### Kenpo-kai ikastaroa

Otsailaren 12tik ekaina arte Toki Ona kiroldegian Kenpo-kai arte martzialaren ikastaroa izanen da. Arte martzialeko disziplina honek borroka sistemak, medikuntza txinatarrak, armen erabilera eta japoniar kulturaren ikaskuntza barne hartzen ditu. Kenpo-kaietako Europako egoitza Oiarzunen dago eta handik etorriko da Juan Maria Vidal erakustera. Ikastaroa larunbat goizetan izanen da eta 3 talde izanen dira: 6-14 urte, 14-18 urte eta 18tik goitikoak. Izena emateko kiroldegira joan edo 948 630215ra deitu.

### Kotto Altzuguren preso ohiari ongietorria

Urtarrilaren 22an Kotto Altzuguren Berako preso ohiari ongietorri ekitaldia egin zitzaion eskoletako frontoian. Ongietorri bero eta jendetsua suertatu zen. Txalaparta doinuak lagun zituela sartu zen Kotto pilotalekuan. Preso eta iheslarien senideak ere taula gainean zeuden. Gure Txokoako dantzari batek aureskua eskaini zien. Aureskuaren ondotik, Julen Zelaieta eta Garazi Taberna bertsoariak bertsoak eskaini zieten Kottori. Gero, oparien txanda etorri zen. Kottok bildutako jendeari eskerrak eman zion eta kartzelan gelditutakoak gogoratu zituen.

**ANSONEA** *Zatetsua*

- Eguneroko menua eta karta
- Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 715 - 407 406 781

© 948 631462  
Alzate 1 - BERA

**KIRATI**



## LESACA

# Kultur Etxearentzako dirulaguntza falta salatu du Onin udal taldeak

Gaia Nafarroako Parlamentura eraman nahi du PNVko Etxegaraik

Aitor AROTZENA

Onin Udal taldeak Lesakako herriak Nafarroako Gobernutik Kultur Etxearekin «*pairatutako engainua eta tratu*» salatu nahi izan ditu, Deñe Abuin eta Gabi Igartzabal zinegotziek eskainitako prentsaurreko baten bidez. Oninen ustez, «*Udalak Gobernuak berak errandakoari segitu dio, 70 milioi pezeta gastatzeraino, adreilu bakar bat paratu gabe, eta Gobernuak inolako konpromisonik hartu gabe*». Oninek jakinarazi zuen, «*2005. urtean Udalak ez du inolako laguntzarik jasoko, ez liburutegia egiteko, ez Kultur Etxeagileko*». Udaltaldearen ustez argi dago «*Lesaka ahantzia dutela eta entzun gaitzaten lan egin behar dela*». Horretarako, Corpas kontseilariarekin bilera baten zain daude eta dei egin diote PNV-EA taldeari eta bereziki alkateari Iruñera gehiago joateko eta udal gaien gainean gehiago egoteko.

Onineko kideek kultur etxe egitasmoaren historia aipatu zuten. Honela, proiektuaren lehen urratsak 2000. urtean eman ziren. 720



Deñe Abuin eta Gabi Igartzabal zinegotziak keju agertu ziren Nafarroako Gobernuak Kultur Etxearen inguruan izan duen jarrerarekin.

milioi pezetako aurrekontua zuen proiektu hura ez zuen begi onez jo Vianako Printzea erakundeak, eraikina bere osotasunean mantentzeko beharra azpimarratu baitzuen. Aldaketa batzuk egin ziren eta proiektua 950 milioitara joan zen. Oninen erranetan, «*une horretan izan zuten Lesakako kultur taldeek Kultur Etxearen proiektuaren berri, ordua arte ez baitzen inolako harremanik edukieurekin, behin eta berri kultur etxe baten pre-*

*mia aldarrikatuta ere, eta horien diseinuan parte hartzeko eskaria eginda ere*». Onin proiektu honen kontra agertu zen, «*udalak 650 milioi inguru jarri beharko litzukeelako, musika eskola proiektutik kanpo gelditzen zelako, herriko kultur taldeekin harremanik izan ez zelako eta ingurugiroarekiko eragina hagitz handia*» zelako. Iruñan ere lekuz kanpokotzat jo zuten aurrekontu hori eta gauzatzeko ezintasuna adierazi zuten. Kultur

taldeekin bildu ondotik, 600 milioi pezetara murriztu zen proiektua. Kultura Departamentuko Ondare, Kultura eta Liburutegietako zuzendaritzen artean hitzarmena sinatzeko aukera aurkeztu zen, %50eko dirulaguntza bideratuz. Udalarentzat kopuru eramangarria litzateke hau, baina aurten dirulaguntzarik ez da izanen. Gai hau Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordera ere eraman nahi du PNVko Jose Luis Etxegaraiek.

## FLASH

## San Fermin erretiratuen elkarteak urteko batzarra

Otsailaren 19an eginen du San Fermin erretiratuen elkarteak urteko batzarra, 18:00etan bere egoitzan. Aurten zuzendaritza batzordeko karguak berritzea suertatzen denez, juntan parte hartu nahi duenak otsailaren 17a baino lehen bete behar ditu paperak eta egoitzan utzi. Bertze aldetik, mus, seiak eta despiste txapelketetan izen emateko epea ere otsailaren 19an itxiko da.

## Rafa Maritxalar Nafarroako txapeldun

Hiru Herri taldean ari den Rafa Maritxalar korrikalaria ustekabean Nafarroako kros laburreko txapeldun suertatu zen urtarrilaren 30ean, Iruñean egindako lasterketan. Maritxalarrek 12 minutu eta 27 segundu behar izan zituen 4 kilometroko ibilbidea osatzeko eta azken sprintean bi segunduko aldea atera zion Ardoi taldeko El Mostafa Youneseri eta 15 segundukoa Ardoiko Raul Amatriaineri.

## Argia Saria Julian Iantzir

Julian Iantzi ETBko aurkezle lesakarrak Argia Saria irabazi du telebista sailean. Saria ematerako orduan, «*etxekoa, gertukoa eta naturala*» dela azpimarratu dute epaimahaikoek.

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfn: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESACA

**XATURETXEA**  
Zahar  
JATETXEA  
Tfn: 948637027 LESACA

**IRU BIDE**  
MARTXO  
Tfn: 948 637 127  
LESACA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESACA  
IMANOLA TELLETXEA ZUZAYA  
Gasolla etxera eramaten duçu  
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)



## ETXALAR

# Orizkiko Zimitzu baserria suak kiskali zuen urtarrilaren 25ean

Babes Ofizialeko hiru etxebizitza eman gabe daude oraindik

### Joseba eta Nerea

Joan den urtarrilaren 25ean Orizki auzoko Zimitzu baserriak sua hartu zuen. Ilunabar partean hasi zen sua sukaldetan, eta segidan baserri guztiak su hartu zuen. Sua itzaltzera Doneztebeko suhiltzaileak etorri baziren ere, baserri guztia erre zen. Zorionez bertan bizi den Evangelista Elizagoienek etxetik atera ahal izan zuen eta ez zuen inolako kalterik sufritu.

### Ortzegun Gizeneko antzerkia

Joan den ortzegunean, otsailaren 3an herriko ttikienek eman zieten hasiera ifautiei. Eguraldi ederra izan zuten goizean etxeko zingar eta arraultze eskean ibiltzeko. Arratsaldeko partean, 14:45ak aldera eskolako haur guztiak plazan bildu ziren arratsaldeko ikuskizunari hasiera emateko. Aurten ez ziren herriko haurrak bildu ziren ba-



Ortzegun Gizen egunean antzeztan eskolako neska-umtikoek herriko eta Arantzako ikusleen aitzinean.

karrak, Arantzako eskolako haurrak etorri baitziren. Zikloka banatuta beraien antzeztan erakutsi zituzten herriko auzoen barrena bildu zen jende guztiaren aitzinean. Arratsaldeko bostak aldera plazara bueltatu eta berendu eder batekin bildu zituzten indarrak trikitixa doinu alaien arabera gorputza mugitzeko.

Egun polita, dudarik gabe, ez bakarrik hautzintzat, baita gurasoentzat ere.

### Babes ofizialeko etxebizitzak

TITIPI-TTAPAKO 389 alean erran genuen etxelarren eraikitzen hasi diren babes ofizialeko 12 etxebizitzak salduak zeudela. TITIPI-TTAPARI jakinarazi diotenez 3 etxe-

bizitza daude oraindik adjudikatu gabe. Etxebizitza horiek erosi ahal izateko interesatuak Etxelarren erroldatua egon beharko du gutienez azkeneko lau urtetan. Interesatuak telefono hauetara dei dezakete informazio gehiago eskatzeko: 948 637709 (Noelia Etxarte) eta 948634862 edo 649381583 (Belen).

## FLASH

### Garbitzaile lanpostua

Herriko Etxeak garbitzaile bat kontratatzeko deialdia ireki du udal eraikinak (Udaletxea, Kultur Etxea, Iharria) garbitzeko. Kontratu urte bat edo bi urteko izan daiteke eta autonomo kontratua izanen du. Interesatuak idazkaritzan izena eman beharko dute otsailaren 16 baino lehen.

### Administrari lanpostua

Udaletxeak administrari bat behar du jornada erdiz eta behin-behineko postua izanen da. Interesatuak otsailaren 18 baino lehen aurkeztu beharko dituzte dokumentuak herriko etxea. Lanpostua oposizio bidez eskura daiteke eta horretarako azterketa eginen da izen ematen duten guztien artean. Lanpostu honen inguruan informazio gehiago behar izanez gero Herriko Etxean galdetu edo Nafarroako Boletín Ofizialean begiratu beharko da.

### Behar Bidasoa eta Sahara

Udalak 1.326,50 euroko dirulaguntza bana eman die Behar Bidasoa eta Nafarroako Sahararen Lagunak erakundeak.

**HERRIKO**  
OSTATU - JATETXEA

Herriko kalea, 3 • 48121 (Orizki)  
Tel: 948 63 70 30

**LEGARRA**  
**BERRIKUNTZA**  
OPOSIZIOAK PRESTATZEKO  
LIBURUAK EKARTZEN  
DITUGU, EUSKARAZ ETA  
GAZTELERAZ  
*Egunero irekia*

Tel: / Fax: 948 63 70 30 • Alhastuz, 9 •

«USOA»  
NEKAZARI KOOPERATIBA

Genaduarentzat  
pertsurik egokiena  
Tel: 948635214

**ETXALAR**

arropak - mandareak  
mantak - nondioak  
toallak - kortinak  
altonbrak

**Goya**  
Bera

Alhastuz, 9 • Tel: 948 630 082

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TEL 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia



## ARANTZA

# Daniel Iparragirrek eta Xabi Elizaldek irabazi zuten Ekaitzako pilota txapelketa

Eskolako ikasle eta irakasleek zuhaitzak landatu zituzten otsailaren 2an

Nerea ALTZURI

Aintzineko alean ihauteriei buruzko zenbait xehetasun eman genizkizuen. Informazioa osotuxeagoa jaso dugu oraingoan eta batez ere, ortziraletan eta larunbatean, urtarrilaren 21ean eta 22an izaniko zenbait ekintzei buruzko aipamena egingen dugu. Ortziraletan mozorro xurien eta gaztetxoaren etxez-etxeke itzulixkak eta puxka biltzeak izan ziren. Arratsean ia ehun lagunek bertso pila ederra entzun zuten Jon Maia eta Xabier Legarreta bertsolariaren eskutik afalondoa. Goizalderarte luzatu zen bertso besta eta herritarrak eta herritarrak ez direnak bildu ziren saltsan. Aterpera etorritako AEKko taldean Juan Martínez de Irujo eta Eulate pilotariak ere herriko ifauteak ezagutu zituzten. Bertzalde, berrogei bat emakumek Pabloenean afaldu zuten eta Mikel Salaberriren dantzagarriekin go-



Aurten ere udal langileen laguntza izan dute eskolako ikasle eta irakasleek zuhaitzak landatzeko.

rapean giro ederra paratu zuten.

Biharamunean, larunbat arratsaldean, haurren mozorro desfilea eta guratso elkarteak prestaturiko berendua izan ziren. Ondoren, mezondoan, Ekaitza elkarteak antolatutako pilotari partidak izan ziren. Pilota txapelketa 3. eta 4. postuak eta

finala jokatu ziren. Honako pilotari hauek parte hartu zuten: Txapelketan Ander eta Xabier Agesta anaiak aritu badira ere, ihauterietako larunbatean, Xabier Larretxea Anderren ordeztatu zen. Horrela laugarren postua Xabierren bikoteak lortu zuen. Hirugarren postuan, Eneko Ordoki eta Joseba

Pikabea gelditu ziren, nahiz eta txapelketan bezala Imanol Mitxelena eta Joseba Madañaga izan aritzeko zena. Finaleko partiduan, Daniel Iparragirre eta Xabi Elizaldek, 22 eta 18 irabazi zituzten Jaibiartxo Iparragirre eta Joxe Agustin Gofri bikoteari. Ondotik, errifon zozketaren txanda izan

zen: Telebista Martinekobordara joan zen; Urdaiaspikoa Bordaberri eta oillaskoak berri, Maixe Lukanbliok eskuratu zituen. Gero elkartean, 50 bat lagunek afaldu zuten. Arratsez eta goizaldera bitarte era guzietako mozorroak izan ziren aurtengo ihauteriei bukaera emanez.

## Eskolatik berriak

Otsailaren 2an, goizez, herriko eskolako ikasle eta irakasleak Trapazelaia ateraldia egin zuten zuhaixkak landatzeko. Herriko langileek lagunduta, ehun inguru gerezi eta haritz amerikar zuhaixka landatu zituzten. Bertzalde, biharamunean, Etxalarren, ortzegun gizen zela proiektuz, bertako ikaslearen antzezlanak gozatu zituzten. Azkenik aipatu, eskolako zarearen jabea agertu dela. Jose Luis Indakoetxea Ariztibarrenkoa da zarearen jabea.

**ERREKALDE**

OSITUA

PLATER  
LANTZARITZAK

PURTZAK  
LANTZARITZAK

Tfn: 945 430 259 • BERA

**TOLDOAK** BALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

**MOSKITERAK, PERTSIANAK** BOTORZATZAK

VENEDIANAK. PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK

Tfn: 945 430 259 • BERA

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

ingurutz • gas • kolektiboa

Tfn: 629 44 96 02 • BERA

945 430 259 • BERA



## SUNBILLA

# Karroza ikusgarriak agertu ziren iñaute-igandean

Hiru mila bisitari izan ziren herrian

### ttipi-ttapa

Iñauterietako egun haundia ospatu zuten igandean, karrozen desfilearekin. Urtero bezalaxe, hainbat bisitari hurbildu zuten Sunbillara, azken egunotako eguraldi hezearekin konparatuta, hotza bai, baina eguzkia atera baitzen igandean. Foruzaingoak emandako datuen arabera, 700 kotxe eta autobus bat sartu ziren Sunbillan, 3.000 lagun baino gehiago.

Azkeneko urteotako ohiturarekin segituz, hainbat karroza ikusi ahal izan ziren Sunbillako karriketan. Bidasoako piratek ireki zuten desfilea. Aitzinako ibilgailuen erakusketa ederra etorri zen ondotik, txirindula, globoak eta ablonetekin, ber-

tzeak bertze. Herri Kirolaren historian garrantzi handiko apostu bat ere antzeztu zen, Luxia eta Latasa sunbildarraren arteko aizkora desafioa hain zuten.

«Oeste»ko saloia, rodeo eta guzi izan ziren eta anbulantzia bat ere agertu zen. Bestetan ohikoak diren tiropitxoi bat ere izan zen. Mendi espedizio bat ere ikusteko modua izan zuten herrira hurbildutakoek, "Mision imposible del K-3" izenekoa. Ez zuten, ez, lan errexa, kasik 9.000 metro zituen mendia igo behar baitzuten.

Mineroak, ONCEko kaxotak, xaguak eta bertze ikusi ahal izan ziren. Duela 23 bat urte Sunbillako karrozekin hasi zen koadrillak garai ba-



ARGAZKIA: JONENA OLAGARRA

Aizkora apostua eta tiropitxona, iñauterietako bi karroza ikusgarri.

teko ogilabea, dolarea eta errotak lanean paratu zituzten. Gainera, handik ateratako, ogi, artopil eta sagardoa jen-

de artean banatu zuten. Eguraldi hotzari aurre egiteko bertze karroza batek 430 litro salda, 1.500 arraultze tortillan,

60 kilo gaztain erre, 80 kilo talo, gazta, 300 litro ardo eta lehen aldiz, 200 litro sagardo eta pittarra banatu zuten.

**Jose I. Gonzalez Enguita**

**Pintura lanak orokorrean**

948 235 492  
948 630 983

Barakaldo 29 - 1. O. B. 48100 BILBAO

**Carpintería Uranga, s.l.**

- **MOLDAKETA, ERREFORMA eta ERAIKUNTZA** mota guztiak egiten dira.
- **ATEAK eta LEIHOAK.** Korrederak eta finkoak.
- **ZOLAK:** Tarimak eta parketak
- **ALTZARIAK:** Enpotratuak eta neurriera eginak.

Otsango industrialdea • Tel.-Faxa: 948 637715 • Mug.: 696 479698 • LESAKA

**ttipi ttapa**

Tfnoa: 948 63 54 58  
Faxa: 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net  
Andutzela 12  
ETXALAR



## ITUREN-ZUBIETA

# Urteroko joan-etorriak zintzo bete zituzten joaldunek iñauterietan

Aspaldiko partez ahare jokua ikusi ahal izan zuten Zubietan

ttipi-ttapa

Aspaldiko ohitura berri-ritu bertzte urte batez Aurtitz, Ituren eta Zubietako joaldunek. Astelehenarekin, Zubietan eta Aurtitzko joaldunek bisita egin zuten Iturenara. Iturengo joaldunak Latsaga aldera atera ziren, bizilagunei harrera egitera eta denak batera, beraien joare eta turuta-soinuekin Iturengo plazan bildutako mozorroak uxatu zituzten. Herriko Etxeko ganbaran gosaldutuzten, hainbat bisitari ezagun eta ezezagun lekuko zirela.

Asteartean, berriz, Zubietan izan zen egun handia. Oraingoan, Ituren eta Aurtitzko joaldunek jo zuten Zubietan aldera eta Zubietako joaldunak errotara atera ziren ongi-etorria eskaintzera. Ordurako mozorro besta ederra bazen Zubietako plazan, baina joaldunak agertu zirenean hauek hartu zuten protagonismoa. Aurtengoan, Zubietan,



ARGAZKIA: ANARA MINDEGIA  
Joaldunak eta mozorroak protagonista.

aspaldiko ohitura bat berri-ritu zuten. Hain zuzen, garai batean ohikoa zen iñauteri-asteartean ahare apostua egitea Zubietako plazan. Ohitura hori galdua zen, baina aurten berriz ere ahare jokua ikusteko modua izan zen, Luis Martinek Doneztebetik eramandako hiru aharekin.



## Mendaur soluzioko lur-jabeekin bilera egingen da hilaren 15ean

Ur-horndura arazoak moldatuko dituen Mendaur soluzioak ukitzen dituen lur, ondasun eta eskubideen jabeak eta Ituren eta Zubietako alkateak Toki Administrazioako Departamentuarekin bilduko dira otsailaren 15ean. Jabetza ziurtatzen duten paperekin eta azkeneko kontribuzioarekin joan beharko dute titularrek.

616 513 497

**Pititi**

ESKABAZIOAK

(/Asentia)

10701 DONEZTEBE (NAFARRA)

**APARAN, S. A.**

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**PAGOLA**

**TXISTORRAREN IZENA**

© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
**BERA**



## DONEZTEBE

# La Union Kasinoaren zuzendaritza batzorde erdia berrituko da urtero

Hiru juntakidek bertze hiru aukeratuko dituzte kargua uzterakoan

tti-pl-tapa

Doneztebeko La Union Kasinoak urteko batzarra egin zuen urtarrilaren 23an. Kasinoa da herriko elkarterik zaharrena eta urteko 70 euro ordaintzen duten 205 bazkide ditu gaur egun. Bear-Zana pilota plazaren ondoan dagoen elkartearen egoitzak ere itxura ederra ageri du orain, kanpo aldeko paretak eta argiak berriitu baitira, 18.000 euroko aurrekontuarekin.

Igandeko batzarrean hainbat garrantzitsu hartu ziren, horien artean zuzendaritza batzordea berritzeko sistema berria. Gaur egun Alejandro San Miguel "Sanba" da elkartereko presidentea. Alejandro Maylin da idazkaria eta Oskar Mindedgiak, Juan Estangak, Jesus Mangadok eta Maddi Ruizek osatzen dute batzordea. Bertze elkarte gehienetan gertatzen den bezala, zaila izaten da karguak berrietzea eta horregatik aldatu dute sistema. Ho-



ARGAZKIA: OCHOA

Kasinoko hiru bazkide sukaldeko eltze artean. Erdian, Alejandro San Miguel elkartereko presidentea ageri da.

nela, zuzendaritza batzordeko hiru kidek, kargua uzterakoan bertze hiru aukerako dituzte. Hurrengo txandan, bertze hiruek aukeratuko dituzte beraien ordezkioak eta horrela urtero. Honela, pertsona bakoitza gehienez ere bi urte egoten ahal da batzordean. Zuzendaritza

batzordeko kideek ez dute bazkide kuotarik ordaindu beharrik izanen.

Arestian aipatu bezala, elkartearen aitzinaidea moldatu baldin bada ere, teiltatua moldatzeari buruz ere aritu ziren batzarrean. Aipatuenez, ez da oso-osorik berriitu beharrik izanen,

baina lan handia egin beharko da.

Bertze aldetik, azken urteetan elkartearen egitarauan ohikoa bihurtu den barrikotea martxoaren 5ean egingen da, larunbatarekin. Urtero bezala, kupela ekarriko du Avelino Mitxeok eta sagardotegiko menu tipikoa izanen da.

## ERREPIDEAK

# Endarlatsa eta Irun arteko errepidearen proiektua irailerako egingen da

Endarlatsa-Irun errepideko trazatu berriaren proiektua irailerako akautua egongo da, urtarrilaren 31n Nafarroako eta Gipuzkoako ordezkariak dituen batzorde teknikoaren bileran jakinarazi zenez. Bidasoa erreka gainean zubi berri bat egingen dela ere aurreratu zuten. Gipuzkoako Diputazioak Sener enpresari eman zion proiektua idazteko ardura eta iazko azaroaren 29an hasi ziren lan horretan. Aurreikuspenen arabera, aurtengo irailan trazatuaren proiektua eta 2006ko maiatzean eraikuntza proiektua eginak egongo dira. Hiru kamileginen dira bidearen %73an eta lau karril lrunetik hurbilen dau den 700 metrotan.

Zure ingurua traste gaitzak eraketan (konkretu, zintze, amolatu, kuxutu...) eta erretze-egintze garbitze nahiz baxuak, detritu eta hondaketa gara hondaketa Termita eta Polifenol kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 948630155  
**BERA**

**Alberto RETEGI**  
Aitzate, 17 BERA ☎ 948 630 763

**abokatua**

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**  
• Astelehenean orotara, 9:00etatik 15:00etara  
• Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bidea 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
artekari@artekari.com

**BURLATA:**  
ARTEKARI S.L., Tfnoak: 948 130028 Faxa: 948 130713  
Non: La Vña karrila, 4-bidea • 31000 BURLATA  
pab@artekari.com

Largia Autonomiak  
Rekuzazio eta mendi-argirik  
Nahiz eta Asagor Soneak  
Lan-kontratutarako laguntza  
Erpresa berrabiarazteko sarrera  
Diru-egintza eraberridun  
Kontabilitateak  
IVA eta PIVF  
Errenta aldipterak  
Ebanjasiun eta jirabito erpedientziak  
Bideragartitzaun-planak eta aurrekontuak



## GOIZUETA

# Heldu da Korrika 2005!

Martxoaren 12tik 13ko gauean ailegatuko da gure herrira

Esteban AROTZENA

Martxoaren 12tik 13ko larunbat gaueko 1:35etan ailegatuko da Korrika-2005 gure herrira antolakuntzaren prebisioak betetzen baldin badira. Egun haundi horren aurretik lan asko egin beharra dagoenez, herriko gazte talde batek hartu du horren ardura. Kultur taldea ere tartean izanen da. Prestatutako lehen ekitaldia, otsailaren 12an, larunbat honetan, 19:00etan Ganbaran egingen den aurkezpena izanen da. Herriko merkataria eta erakunde ezberdinei gonbidapen berezia luzatuko zaie ekitaldi ho-

netarako. Kilometroak saldu ahal izateko eta euskararen aldeko gertakari honen inguruan herria girotzeko, lerro hauek idazterakoan oraindik lotu gabe zeuden hainbat asmo azaldu zizkiguten antolatzaitzaileek. Garrantzitsuenak, martxoaren 5ean egingen litzatekeen barrikotea izanenda. Orain dela lau urteko afarian 300 herritar inguru bildu ziren pilota plazan. Hemanetik Goizuetarako mendi martxa ere antolatzaitzaileen agendan dago.

Heritik Goiko Gainera bitarteko 15 kilometroak saltzea da goi-



ARGAZKIA: EDOIN LOIARTEA UTZA

2001ean Korrika herritik pasatu zenean 700 metroko kilometroak egin behar izan zituen antolakuntzak, eskari ikaragarriari erantzun ahal izateko.

zuetarren erronka. Aurtengo edizioaren kilometro bakoitzak 320 balioko du, baina bada diru gutxiago erabiliz laguntzeko aukera, Korrika laguntzailearen bonoak edo herrian salgai egonen den materiala erosiz esate baterako. Korrika-2001ean 700 metroko kilometroak egin behar izan zituen antolakuntzak herrita-

ren eskari ikaragarriari erantzun ahal izateko. Ea aurten ere horrelaxe gertatzen den!

## Hauteskunde mahaia

Otsailaren 20ko Europar Batasunaren Konstituzioari buruzko erreferendumean bi hautes-mahaletan egonen diren herritarrek ondorengo hauek izanen

dira: A mahaiko presidentea Jose Antonio Apeztexea Elizalde izanen da eta bokalak Jose Ramon Uitz Larrea eta Milagros Eskudero Zubeldia. B mahaian, berriz, Milagros Loiarde Eskudero izanen da presidentea eta Juan Maria Zugarramurdi Zestau eta Luis Valentin Zugarramurdi Aizpuru bokalak.

## ARESO

# Eskatutako obra guziak sartu dira Hirurteko Planean

Eliz azpiko pareta %67an subentzionatu da Iruñetik

Juana Mari SAIZAR

Udalak duen hirigintza planaren barnean eta inkesta kontutuan hartuz, 2004-2007ko hiru urteko planaren barnean jendeak eskatu dituen obra guztiak sartu dira. Esan behar da beste eskariak ere egon direla baina ezinezkoa dela hemen sartzea, adibidez, frontoia, Gerefonea, Pedronea, San-

turua, Txuinea, Belaku, eta Felipe-bordako pistak berritzea eta herri bamean argi berriak, saneamentua eta ura berritzea. Honen aurrekontua 833.000 eurokoa izango da.

## Hauteskunde mahaia

Europako konstituzioaren hauteskundetako mahaia osatuko du-

te: Maria Belaunzarán lehendakaria, eta bokalak Jose Joakin Saizar eta Juan Angel Arnalde.

## Eliz azpiko pareta

Eliz azpiko pareta, Leku-Edera aurrekoa bukatuta dago eta Nafarroako Gobernuak %67 subentzionatu du, eta 6.000 euro udalak ordaindu beharko ditu.



ARGAZKIA: JUANA MARI

Eguraldiak ez ditu aurtengo ihoteak hondatu. Betik egitaraua baserrietan eta herrian eskea, otorduak, atxauraren lehiaketa eta dantzaldiak osatu dute aurtengoa. Txaranga talde bat ere izan dugu. Eta primizia Jaione eta Ikerren kantua, txundigarria benetan.

## Kontribuzio tasak jeitsi dira

Lurraren errebaloriza-

zioa egin dela eta prezioa igo egin da eta kontribuzio tasak %31tik %17ra jeitsiko dira.



Zure hirirako hoberena  
burutik beheraino.

Teknia  
CORPORATE

Teknia Corporate-k zure Osasunerako, Edertasunerako eta Ongizaterako dituen zerbitzu guztiak Teknia Mediki Zentroko profesionalak zuzentzen dituzte. Tratamenduetan, azken belauntaldiko tresneria erabiltzen da; presoterapia, elektroestimulazioa, vacumterapia, etab. Lehenengo bisita medikuari, doan, eta jarraipena aukeran, tratamenduak irauten duen bitartean.

#### AURPEGI-TRATAMENDUAK

- KABIAR tratamendua.
- ANTI-AGING tratamendua.
- A bitaminaren tratamendua.
- Garbitze eta hidratatze tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Larmintzaren garbiketa.

#### GORPUTZ-TRATAMENDUAK

- Zelulitisaren aurkako tratamendua.
- Birsendotze-tratamendua.
- Hanka nekatuen tratamendua.
- Birmoldatze-tratamendua.
- Estresaren aurkako tratamendua.

#### BESTE ZENBAIT ZERBITZU

- Eguzkirik gabeko brontzeatzea.
- Autobrontzeatzea.
- Permanentea eta betileak tindatzea.
- Manikura eta pedikura.
- Depilazioa: Ezko beroa eta hotza.

•• Eska orain zure tratamendurako bonua 200ko urtaridaren 31 baino lehen eta %10ko beharpena izango duzu.



IRUNGO BIHOTZEAN.

Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZEN ondoan) - 20302 - Irun - Tel: 943 660 150 - info@tekniacm.com - www.tekniacm.com



## LEITZA

# Ateka Beltzan Gizarte Zentrua egin nahi du hiru herritarretik batek

Hirurehun etxetara deitu da inkesta egiteko

ttipi-ttapa

Ateka Beltzan gizarte zentrua egitea nahi dute herritar gehienek 012-infolocal zerbitzuak Udalarentzat egindako inkestaren emaitzen arabera. Urtarrilaren 28an egin zen batzarraren eman zituzten jakitera datu hauek eta emaitzen txostena herriko eragile politiko guztiei eta komunikabideei helarazi diete.

"Ateka beltza etxea zertarako erabili behar ko litzatekeen" galdera egin eta jasotako erantzunen %36,65ak, gizarte zentroaren aukera egin zuela ageri da txostenean. Segidan, eguneko zentroaren aldeko jarrera azaldu dute inkestatutako %27,95ak; kultur etxea %14,29ak aukeratu dute; eta gazte gunea %11,80ak; Hauek ziren erantzuteko ematen ziren lau aukerak, baina bestelako erantzunak ere jaso dituzte, ordea, musika eskola, osasun etxea, etxebizitzak egi-



Hogei urte baino gehiago dituzten etxeetan egiten diren zaharberritze lanentzako dirulaguntzak arautuko dituen ordenantza onartu du Udalak.

tearen aldekoak, besteak beste.

Inkesta egiterakoan erabili zuten prozedurari dagokionez, 300 telefono dei egin omen zituzten, iazko urria eta azaroan, adin tarte guzietako herritarrei. Deia hartzen ez zutenetan beste bi saiakera egiten ziren. Halere, 97 dei hartu gabe geldituzirela argitzen da txostenean.

Telefonoa hartu zuten kasuetan, inkestaren nondik norakoak azaldu ondoren, galdera honi erantzunik eman nahi izan ez ziotenak 42 lagun izan omen ziren.

## Etxeak zaharberritzeko dirulaguntzak

Hogei urte baino gehiago dituzte etxeak zaharberritzeko, eder-

tzeko eta hobetzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza onartu du Udalak. Zehazki, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren %100 ordainduko da, teilatua, kanaloian edo hegalean obrak egiten direnean, baita etxearen aurrealdea margotu edo moldatzen direnean eta leihoak, kontraleihoak eta balkoiak

## FLASH

## Aurrera futbol talde lidergoan

Joan den denboraldian Preferente kategorian galdu ondok, zalantzarik betea hasi zuen denboraldia Erregionaleko lehen mailan Aurrerako futbol talde nagusiak. Pixkanaka sendotzen joan da, ordea, eta hau idazterakoan kategoriari lidera da, lehen postuan dago. Honela sehituz gero, berriz ere mailaz igotzeko aukera izan dezakete leitzarrek.

## Igor Astibiari elkartasuna

Igor Astibia herriko presoaren askatasuna eskatuz sinadurak biltzeko ekimena martxan da. Torrea, Gaztañaga eta Peritza tabernetan, Maimur eta Astiz liburu-dendetan eta udaletxeko idazkaritzan. "Igor lehenbailehen askatu eta etxean izan dadin" eskatzen dute.

moldatzen direnean ere. Modu berean, zerga hau oso-osorik subentzionatuko da hogei urte baino gehiagoko etxeetan igogailua jartzen denean eta ezindu fisikoren bat bizi den etxeetan sarbidea hobetuko duen lanak egiten direnean. Gubxienez 5 urteko kontratuarekin errentan jartzen diren etxe hutsei ere %10 lagunduko zaie.



102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 943 623 130

## TXOTX

denboraldia berria hasi dugu

- Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- 250 lagunendako lekua jarrita.
- 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatu.
- Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarautzik ekarrit.

ttipi  
ttapa

Tfnoa: 948 63 54 58  
Faxa: 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net  
Andutzeta 12  
ETXALAR





euskaraz ere,  
**NATURAL TASUNEZ**

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.  
Gure lan egiteko modua da.



## LANA

# Ehun lanpostu galduko dira Zalainen enpresaren Industria Planaren arabera

Condesak tubo produkzioa berrantolatu nahi du

## ttipi-ttapa

Zalaingo lantegia erosi zuen Condesa enpresak lantegi honetarako plan industrialak aurkeztu zuen urtarrilaren 12an. Plan horren arabera, produkzioa ez ezik lanpostuak ere murriztuko dira Zalainen hermetik 2007 urtera. Condesak tubo produkzioa berrantolatu nahi du dituen lantegien artean eta Zalainen erakuntzarako eta moblegintzarako egiten den egitura tuboaren produkzioa bertatik kendu eta kalibratutako tubotan eta autogintzarako erabiltzen denan espezializatu nahi dute, errentagarriagoa delakoan. Prozesu honen eraginez, produkzioa erdira jautsiko da eta ehun lanpostu galduko dira 2007. urtera arte.

Industria Plan honen arabera, Zalaingo produkzioa 2003. urteko 213.000 Tonatik 2007rako aurreikusi den



Egitura tuboaren produkzioa Zalainetik kendu eta kalibratutako tubotan eta autogintzarako erabiltzen denan espezializatu nahi dute, errentagarriagoa delakoan. Horretarako, produkzioa eta langile kopurua jautsiko da.

111.500 Tonako produkzioa pasatuko litzateke. Produkzio jautsiera honek, lanpostuen murrizkera ere egingen luke, 2003an zeuden 474 langileetatik 340 langiletara. Batez ere behin behineko lanpostuak, ebentualak, desa-

gertuko dira eta hori somatzen hasi da dagoeneko lantegian. Sindikatuetatik jakinarazi dutenez, joan den urteko urritik 50 bat lanpostu galdu dira, kontratua akautzen zuten behin behineko langileei ez baitzaie kontratua be-

rritu eta dagoeneko 400 langile baino guttiago ari dira Zalainen. Baina enpresa zuzendaritzatik komiteari jakinarazi zaio lanpostu finkoa duten langileak ere badaudela soberan, administrazio lanean ari diren 34 bat langile, hain zuzen.

Plana denboran oraindik gehiago luzatuko da 2010. urtera arte. Ordurako lantegiaren produkzioa zerbait igoko da, 117.000 Tona arte eta 2007an baino 50 langile gehiago izanen omen ditu lantegiak, 390 lagun. Industria Planaren arabera, 15 milioi euroko inbertsioak egingen dira, labe berri bat, zizalla eta akaberako leerroa instalatuko baitira 2010erako. Aurten eta heldu den urtean, aldiz, gaur egun fabrikak dituen zazpi makina kenduko dira.

Sindikatuak ez dute begi onez ikusi plan hau, orokorrean eskualdean 84 lanpostu galtzen direlako. Gainera, egiturako tubo produkzioa uzteak eragina izanen du Lesakan Aceraliak duen produkzioan, 70.000 Tona guttiago bideratuko baititu Zalainera, Lesakako lantegiaren produkzioaren hamarretik bat.

## HAUTESKUNDEAK

### Europako Konstituzioaren aurka kanpaina egiten ari da Ezeckoaren Aldeko Ekimena

Europar Batasuneko estatuek adostutako itun konstituzionalari herri bezala ezecko argi eta ozena emateko asmoz,

jende ezkeriar eta abertzalez osatutako ekimen nazional eta zabal gisa eratu zen Ezeckoaren Aldeko Ekimenaren

deiarekin bat eginez Ezeckoa bultzatzeko bildu dira Bortzirietan ere. Hortaz, otsailaren 20an burutuko den erreferendumean ezecko bozka emateko dei eginez kanpaina egin eta hainbat ekimen egiten ari dira. Horien arteko lehengoa joan den ortzirailean, otsailak 4, izan zen, hitzaldi bat eman

baitzuen Ezeckoaren Aldeko Ekimenaren bozemaileak Lesakako Kasinoan.

Ez da joan den astean egin zen agerraldi bakarra, izan ere, larunbatean, otsailaren 5ean agerraldi publikoa egin baitzuten Etxalarako Kultur Etxean kultur gintzan, euskalgintzan, herrigintzan, sindikal-

gintzan, hezkuntzan eta kirol arloan jarduteagatik, zein gure herriaren alde lan egiteagatik eza-gunak diren Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako hainbat pertsonak. Ezeckoaren Aldeko Ekimenari atxikimendua agertu eta eta ezecko botua ematearen beharra azpimarratu zuten.



# egitaraua

otsailak **11** ostirala

Musika zuzenean LUR tabernan.

"MALA VELA"  
Ondotik Dj'ak

23:30

otsailak **12** larunbata

"DISKOTEKA"

00:00

otsailak **18** ostirala

Musika zuzenean LUR tabernan.

"NEUBAT"  
Ondotik Dj'ak

23:30

otsailak **19** larunbata

"THC"

Ondotik Dj'ak

00:00

8€+kontsumizioa

otsailak **25** ostirala

Musika zuzenean LUR tabernan.

"FUNKY CABRONES"

23:30

otsailak **26** larunbata

"DISKOTEKA"

00:00

eta martxoan... **26**

**DEF CON DOS**



# LUR

d i s k o t e k a

KAMIONETA-TAXIAK atean izanen dituzu esperoan.  
667 551 273 • 608 776 176

2:00ak arte sarrera doan. Aintzinerat 8€+ kontsumizioa | Ostiralero sarrera doan

Elizondo (Nafarroa)

[www.lurrelizondo.com](http://www.lurrelizondo.com)



BAZTAN

# Damaso Zabalzaren izena hartuko du Iruritako Gizarte Bilguneak

Urtarrilaren 25ean egin zen inaugurazio ofiziala

ttipi-ttapa

Iruritako Gizarte Bilguneak herrian sortu zen Damaso Zabalza (1835-1894) pianojole eta konposatzailearen izena hartuko du. Horrela jakinarazi zuen Patxi Izko apezak urtarrilaren 25ean egin zen inaugurazio ekitaldian. Bertan izan ziren Virginia Aleman Baztango alkatea, Begoña Sanzberro, Santi Aldako eta Iñigo Iturralde zinegotziak, Maribel San Jose Iruritako alkatea, Mariano Oteiza arkitektoa eta hainbat bizilagun. Nafarroako Gobernua-ren ordezkari gisara, Carlos Esparza Gizarte Ongizate departamentuko zuzendari nagusia etorri zen. Virginia Alemanek aipatu zuenez, gizarte bilgunearekin «elkarbizitza, errespetu eta elkartzundarendako eremuak irekitzea» nahiko luke. Maribel San Jose Iruritako alkateak, bilgunea errealtate bihurtzeko lanean aritu ziren Miguel



ARGAZKIA: OÑIVIEL

Patxi Izko Iruritako apezak bedeinkatu zuen Iruritako Gizarte Bilgunea eta Damaso Zabalza herriko musikariaren izena hartuko duela aurreratu zuen.

Angel Adin, Cristina Arregi eta Gaspar Castellano zinegotzi ohie eskerrak eman zizkien. Hemendik aitzinera orain arte bezain elkarteak eta langile segitza eskatu zien iruritarrei. Izan ere, hainbat kirol eta kultur elkarte ari dira lanean 817 bizilagun dituen herrian, tartean Aranabia Antzerki Tal-

dea, Baztango antzerki talde bakarra. Horretaz gain, Guraso Elkarteak, Iruritako Gazteak, Aranabia pilota elkarteak, Laxoa Elkarteak eta Irurita Txirindularitza Elkarteak izanen dute instalazio berria erabiltzeko modua, gainerako iruritarrekin batera.

Gizarte Bilgunean 391.000 euroko inber-

tsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak 179.883 euro ordaindu ditu. Beheko solairuan ostatus, joku-aretoa eta komunak daude eta bigarenean 200 lagunendako lekua duen erabileraren aretoa. Hemen erakusketak, solasaldiak, kontzertuak eta zine edo antzerki emaldiak eginen dira.

FLASH

### Elizondoko igerilekuetako sarbidea moldatuko da

Sobamat Travaux Publics enpresak eginen ditu Elizondoko Giltxaurdi igerilekuetako sarbideko moldaketa lanak 15.512,50 euroren truke. Kirol konplexuaren erabiltzaileak kexu azaldu ziren, inguru horretan zulo aunitz zuzeldako eta argirik ez zelako. Gobernu Batzordeak arestian aipatutako enpresaren aurrekontua onartu zuen.

### Amaiurko ur-hornidura

Balleko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza eman dio Amaiurko herriari, ur-hornidurako tuberiak berritzeko. Lan hau lehenbailehen egin beharra zegoela aipatu zuen eskarian Juan Mari Aleman Amaiurko alkateak.

### Baztango merkatue

Larunbat honetan, otsailak 12, herriko 14 artisauek Baztango Merkatuen hartuko dute parte, balleko produktuak promozionatzeko asmoarekin. Merkatue hilaletan behin eginen da, hilaletako bigarren larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Merkatu Plazako gorapean.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

Maria Berzeziak

948 581 807  
948 581 853

Urdun Irarte karrila - ELIZONDO

Okindegia Jatetxea

**Uxoa**

OKINDEGIAN

- Ogi artisauro, egurreko eta txapato
- JATETXEAN
- Menua eta karta (astekuruetan)
- Espesialitate purtilan erretako jabetan

Estreñtu gait, haintza egiazan irru, Gait giron

Ondeki Industrialeko - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN



**BAZTAN**

## Tuku-keta mahai jokia aurkeztu dute urtarrilaren 27an

Fermin Gartxitorena eta Arantxa Zelaia berroetarrak dira egileak

**ttipi-ttapa**

Urtarrilaren 27an Tuku-keta mahai jokia aurkeztu zuten Balleko etxean Virginia Aleman alkateak, Iñigo Iturralde euskara zinegotziak eta jokoaren egileek, Fermin Gartxitorenak eta Arantxa Zelaiak.

Tuku-keta Baztango geografia, historia, kultura eta kirolaren gaineko mahai-jokia da. 500 galdera ditu eta guztiz aproposa gazte, heldu nola adineko jendearendako. Trivial jokua-aren arauz zuzentzen den talde jokia da, egoki-egokia familian airtzeko. Fermin Gartxitorena eta Arantxa Zelaia berroetarrek prestatu dute Tuku-keta mahai jokia. Baztango Udalak argitalpena diruz babestu du eta promoziorako Xorroxin Irratiaren laguntza izan du.

Tuku-keta jokoaren 550 ale argitaratu dira.

Mahai joko ale bakoitzak honako hau du: tableroa, fitzak, dadoak eta peoiak; galderen 100 txartel, arauen liburuxka eta hori guztia sartzeko kutxa. Mahai jokia 15 eurotan salduko da Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan, Elizondoko Fantxi, Nafarpres eta Elordi dendetan eta oronoz-Mugairiko Oskorri dendan.

### Lekarozko Kolegioa erostea aztertzen ari da Udala

Balleko Udala Lekarozko Kolegioa erostea eta bere garaian Aita Kaputxinoek kudeatu zuten ikastetxeak izan dezakeen erabilera aztertzen ari da. Honela erantzun zion Virginia Aleman alkateak Begoña Sanzberrok egindako galderari, UPNko zinegotziak aipatu zue-



Arturocoka

### Korrika prestatzen hasi da Suinki Euskaltegia

Jakina denez, bi urtetuik behin AEK Korrika antolatzen du, Euskal Herrian barna egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Aurten Korrika 14 eginen da, "Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai!" lemapean, martxoaren 10etik 20ra bitartean. Abiapuntua Orreagan izanen da eta helmuga Bilbon. Korrika 14ren nondik norakoak ezagutarazteko aurkezpena egin zuten otsailaren 2an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Baztango Korrika baztortetik Suinki euskaltegian kilometroak salgai daudela ere gogorazti dute. Bertze aldetik, korrika laguntzailea kanpainaren berri eman dute Baztango AEKtik. Kanpaina hau AEKk jasan zituen erasoei aurre egiteko sortu zen. Oraindik ere, zoritxarrez, laguntzaileen laguntasuna ezinbertzekoa dute korrikari ekiteko, horregatik Korrika laguntzaileari egiten dioten eskaintza sendotu dute. Euskal Herrian 300 komertziotan beharpenak izateko aukera dauka Korrika laguntzailea egiten duenak, 12 euroren truke. Dagoeneko, Baztango Suinki euskaltegian eta hainbat ostaturan aurkitzen ahal da kanpaina honen informazioa.

nez, «karrikan zurrumurruak aditu ditut. Udalak Kolegioa 300 milioi pezotan erosiko duela erranez». Alkateak ikastetxearen eta inguruko lurren erosketa aukerei buruz egiazko interesa badela eta aztertzen ari direla onartu zuen, «bai-

na hainbertze milioiko erosketa ez da egun bako kontua. Ondare historikoan ezin da espekulaziorik egin».

Bi urte pasatu dira Lekaroztik azken aita kaputxinoak joan zirela eta oraindik saldu gabe segitzen du ikastetxe-

ak. Erosteko eskaintzak ba omen zituzten, baina ez dira deustan gautu. Gaur egun, Lekarozko ikastetxea eta eliza hutsik daude. Eliza, egoera kaxkarrean dago, teilak erortzen ari dira eta leihoetako kristalak xehetuak ageri dira.

**MENDI**  
ostaturak

Santago 23  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
Jatetxea

AMAIUR • 948453060

**Maderas GOMEN**

Zaldubia Poligonoa • IRURITA  
T. 948 580 845

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Carlos  
Garriluetxe  
Elxenilce

abokatua  
atseguru otokorrik

948 581 466 - 948 580 433  
Francoskoria etorb. 12  
Amatxakada 38  
ELBETE



SARA

# Jende kondaketa egingen dute lau lagunek otsailaren 19a arte

Elizako ezkil dorrea konpontzen hasi ziren urte hastapenean

Laetitia eta Sasi

Urtarrilaren 15etik goiti eta otsailaren 19 arte Saran jende kondaketa egingen da. Hori egiten da Frantziako jendetzaren ezagutzeko. Kondaketa honek xehetasun zenbatuak emanen ditu jendetzari buruz eta bizilekuek. Herriko Etxeak eta Estatistika eta ekonomia ikerketarako erankunde nazionalak (Insee) lan hori elkarrekin egiten dute. Kondaketa egileak auzapezak hautatuak ditu, Saran lau pertsona dira orotara. Kondaketa egilea etxetan pasatuko da, egoitza hosto eta banazko agiri bategin, etxean bizi diren pertsona bakoitzarentzat utziko ditu. Galde zerrenda guztiak bete beharko dira osoki eta garbiki. Pertsona bera berriz etorriko da paperak berreskuratzeko, eta denbora berdinean laguntzen ahal du ere galderei ihardesten nahi dutenentzat.



2003. urteko irailaren 16an, herriko besten ondotik erre zen elizako ezkil dorrea. Orain, urte hasieran elizaren konponketan hasi dira eta 859.872 euroko aurrekontua duten lanak egingen dira.

Erakundeak azpimarratzen du bildutako informazioak bakarrik estatistikan erabiliak izango direla.

### Ezkil dorrearen konponketa

Urte hastapenean, ikusi duzuen bezala

obretan hasi dira elizan. Antolakuntzaren aintzin kontua 859.872,56 eurotara heltzen da. Asurantzak jadanik 56.152,25 euro ordaindu ditu herriari hondakin kentearentzat eta seguritatearen gastuentzat. Gaur egun

asurantzak ordainketa berri bat proposatzen du 40.000 eurokoa. Hori konponketaren lehen gastuak pagatzeko.

Gogoratuko duzue, 2003. urteko besten ondotik, irailaren 16an erre zen elizako ezkil dorrea.

FLASH

### Tripotx jatea

Auzapezak eta kontseiluak erretretan diren saratar guztiak gonbidatzen dituzte otsailaren 12an Omordian 12:30tan tripotx jatera. Bazkarira joateko izenak eman behar dira herriko etxean.

### Sagarnotegia

Otsailaren 17an Zazpiak Bat, dantza taldeak sagarnotegi batera ateraldia antolatzen du.

### Errugbiko emaitzak

Abenduaren 12tik, Sarako emugbilariak bigarren saileko partiduak hasi dituzte. Saratarrek bertze bortz taldeekin dira multzoan, Hossegor, Labatut, Campet la Mollere, eta Euskal Herriko Arrangoitze eta Mendikote. Urtarrilaren 30ean Campet la Mollere-en kontra irabazi zuten etxean (12-10). Partihonen bidez lehen postuan ditugu multzoan. Heldu den igandean, jokatuko dute Labatut-en aurka Sarako zelaian.



**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m<sup>2</sup> perfume, markarik onagunenenak, Utain-orenak, kosmetikoenak... Euskal Herriko preziorik hoberenak

(0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

**HERRIKO ETXKO EDANTEGIA**

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE

SARA • TEL. 0559542519

**BEINTZAko OSTATUA**

0 948 430 111

BEINTZA-LANETA

**ttipi ttapa**

Tlfnoa: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

Andutzeta 12

ETXALAR



## SENPERE

# Turismo bulegoa haurtzaindegi ohian plantatu da Senpere erdian

Herriko etxeak 2.000 euro eman ditu Asiako kaltetuentzat

Franck DOLOSOR

Senpereko berriak ezagutu nahi dituenak pilota plazarat gan beharko du hemendik goiti herriko turismo bulegoa haurtzaindegi ohian instalatu baita. Elkarteak utzirik, toki gehiago izanen dute orain turismo bulegoan lanean ari diren Geneviève Larroquek eta Argitu Fadonek. Herriko Etxeak 20.000 euroko gastua egin du egoitza berria prestatzeko. Bulegoa zabalagoa da orain eta zerbitzu gehiago eskaini ahal izanen dira. Gainerat, aparkalekuak eta oinez ibiltzeko tokiak daude bulego berriaren ondoan. Polizia municipalak hartu du turismo bulegoak utzi zuen egoitza.

### Ihauteriak otsailaren 19an

Mozorrotzeko eguna otsailaren 19an larunbatarekin egingen da aurtentzen. Herriko elkarte ainitzek prestatzen dituzte urtero ihauteriak. Zi-



Adin ederra lehenagoko gazteak biltzen dituen elkarteak bazkaria izan zuen gan den urtarrilaren 20an Ibarungo Fronton ostatuan.

rikolatz euskal dantza taldeko gazteak ethez etxe ibiliko dira hiru larunbatez segidan xingar eta arroltze galdetzeko. Otsailaren 5ean Olha eta Urguri auzoak bisitatuko dituzte, 12an Hergarai eta 19an karrika.

### Adinekoen bazkaria

Adin Ederra lehenago-

ko gazteak biltzen dituen elkarteak urteko bazkaria egin zuen gan den urtarrilaren 20an Ibarungo frontoiko ostatuan.

### Bi mila euro Asiako kaltetuentzat

Herriko kontseiluak mila euroko dirulaguntza bozkatu du berriki Asiako kaltetuentzat.

Bertzalde, herriko langileek urtero afari bat egiteko baliatzen duten dirua ere Asiako jenderi ematea deliberratu dute. Senpeter ainitzek eman duten dirulaguntzeez gain, bi mila euro gehiago ganen dira gure herriko Asia alderat. Itsas ikarak eta tsunamiak desmasia handia sortu zuen abenduan kontinente hortan.

## IBARDIN

# Hitzarmena sinatu dute Berako Udalak eta Ibardingo Merkatariei Elkarteak

Joan den urteko abenduaren 31n hirigintza hitzarmena sinatu dute Berako Udalak eta Ibardingo Merkatariei Elkarteak. Hitzarmen honen arabera, Ibardingo Merkatariei Elkarteak merkataritza gunearen sarbidea hobetzeko hirigintza lanak egingen ditu, hiru fasetan banatuta. Gainera, Ibardingo urbanizazioaren mantentze eta kontserbazioa Elkartearen esku izanen da. Horren ordez, Elkartearen alde Azalerako Eskubidea sortuko da ibilgailuen hornidurarako azpiegitura zerbitzua egin ahal izateko. Udalak diru sarrerak hartuko ditu gasolindegitik, hartzen duen metro koadro bakoitzeko 8,26 euroko kanona, urtero KPren arabera berrituko dena.

## ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • t. 948 580 562 BILBAO

# ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Barrieta, 3 - Arriaga Ind. 3 0100 LESAKA (barrieta Berrak)  
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505



## EHIZA

# Kontrapasako uso ehiza denboraldia martxoaren 16a arte zabalik izanen da

Gan den urtean 1.857 uso bota ziren Nafarroa osoan, horietatik 413 Baztanen

## ttipi-ttapa

Otsailaren 6tik martxoaren 16ra arte zabalik egonen da Nafarroa osoan kontrapasan ehizatzeke denboraldia. Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentutik jakinarazi duenez, tarte horretan, egun guzietan ehizatzeke modua izanen da horretarako baimena duten 500 postuetan, eguzkia ateratzen denetik gordezen den arte. Postu bakoitzean gehienez bi

ehiztari egon daitezke eta ehiztari bakoitzak ezin ditu eguneko lau uso baino gehiago ehizatu. Kontrapasa sasoi osoan gehienez 3.000 uso botatzen ahal dira Nafarroan eta kopuru horretara martxoaren 16a baino lehen ailegatu balitz, orduan akituko litzateke denboraldia. Dena den, kontrapasa libre izan den azkeneko zazpi urteotan ez da inoiz hurbildu kopuru horretara. 1999, ur-



Kontrapasa denboraldi osoan gehienez ere hiru mila uso ehizatzeke baimena dute Nafarroako ehiztariak.

tean 762 uso bota ziren, 2000. ean 1.507 uso, 2001. ean 1.560 uso, 2002. ean 2.593 uso, 2003. ean 897 uso eta joan den urtean 1.857 uso. Joan den urteko kopuru horretatik, gehienak, 413 uso, Baztanen ehizatu ziren, 157 San Adriango kotoan eta 125 Ultzamakoan. Egunik

onenak otsailaren 15a eta martxoaren 8 eta 9a izan ziren.

Ehiza baimendutako postu horietatik eskopetaz bakarrik egiten ahal da. Postuen ardurak usategia kudeatzen duen ehiztari elkartearena izanen da. Hauek arduradun bat kontratatatu beharko du-

te kontrapasa denboraldirako eta eguneko postuetan nor dagoen eta zenbat uso ehizatzen diren apuntatu beharko ditu. Datu hauek astero bidali beharko dira Ingurumen Departamentura. Datu hauek egiazko direla ikusteko tartera zaindaria agertuko dira postuetara.

## Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



### Petra ETXEGARAI ETXART

Arraizzen hil zen 2005eko  
urtarrilaren 10ean, 77 urte zituela

Zure indarra ta sena  
adibide nabarmena  
gure artean geratu da  
eman zenuena  
utzirik sendi dena  
gugandik joan zifitena  
naizta agertu beti gurekin  
egongo zarena

BERE FAMILIA

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58



## EZKONTZAK

Romain Henri Régis Dubruelle eta Alexandra Rouselle. Senperekoak, maiatzaren 22an.

Francis Errekart eta Dominique Etxebertz. Senperekoak, ekainaren 5ean.

Benoît Louis-Joseph Albert de Rozario eta Charlotte Madeleine Jacqueline Aviat. Senperekoak, ekainaren 19an.

Guillaume José Etxeberria eta Gisèle Aline Geneviève Petit-Clerc. Senperekoak, uztailaren 3an.

Jean Claude Etxeberri eta Odile Morvan. Senperekoak, uztailaren 7an.

Jean-Michel Barnetxe eta Sophie Nathalie Chabrol. Senperekoak, uztailaren 10ean.

Lauren François Marq eta Véronique Claude Nathalie Spiwak. Senperekoak, uztailaren 17an.

Wilfried Dalcin eta Laetitia Canteli. Senperekoak, irailaren 18an.

Jean-Pierre Rlamsdam Tahar eta Nathalie Huguette Louise Maris. Senperekoak, irailaren 18an.

Michel Jean-Jacques Robert Faure eta Jeanine Iziaga. Senperekoak, urriaren 2an.

Christiane Sein eta Raymond Sorrondo. Senperekoak, abenduaren 18an.

François Burguete eta Maryse Dulau. Senperekoak, abenduaren 24an.

Sergio Jose Morate Bergara eta Maria Andueza Lanz. Irun eta Berakoa, urtarrilaren 29an.

Agustín Trantxe Agirre eta Lucia Goñi Martínez. Donostiakoak Elizondón, urtarrilaren 22an.

## SORTZEAK

Oskia Mayora Oteiza. Gaztelukoa, urtarrilaren 17an.

Emmy Pommies. Senperekoa, martxoaren 30ean.

Oihan Aramendi. Senperekoa, apirilaren 30ean.

Ines Morgane Jauregiberri. Senperekoa, maiatzaren 11n.

Olivia Angelina Lopes. Senperekoa, maiatzaren 17an.

Alexandre Sanchez. Senperekoa, ekainaren 18an.

Sara Pommé. Senperekoa, ekainaren 21ean.

Romain Errandonea. Senperekoa, ekainaren 23an.

Oihan Barrenetxe. Senperekoa, uztailaren 6an.

Otsanda Davant. Senperekoa, uztailaren 10ean.

Marie Caroline Jorajuria. Senperekoa, uztailaren 22an.

Aldo Mano Chastel. Senperekoa, uztailaren 28an.

Joris Lassere. Senperekoa, abuztuaren 5ean.

Axelle Lopes. Senperekoa, abuztuaren 16an.

Elaia Larroque. Senperekoa, abuztuaren 18an.

Idoia Lucie Peugnet. Senperekoa, irailaren 15ean.

Xabi Alain Artayet. Senperekoa, irailaren 22an.

Eneka Bessonart. Senperekoa, irailaren 22an.

David Yann Eddy Tahar. Senperekoa, urriaren 18an.

Iñaki Muxika. Senperekoa, urriaren 22an.

Mattéo Guy Montin. Senperekoa, urriaren 26an.

Baptiste Jean René Lopez. Senperekoa, urriaren 26an.

Unai Bergé. Senperekoa, abenduaren 11n.

Andrea San Miguel Grande. Oitzkoa, abenduaren 28an.

Saloa Telletxea Zabaleta. Leitzakoa, urtarrilaren 13an.

Mikel Telletxea Cano. Leitzakoa, urtarrilaren 16an.

Eki Mateorena Zozala. Leitzakoa, urtarrilaren 21ean.

Ainara Semper Irastorza. Lesakakoa, urtarrilaren 15ean.

Peio Iturria Pombar. Lesakakoa, urtarrilaren 16an.

Ugaitz Aldabe Telletxea. Doneztebekoa, urtarrilaren 16an.

Joanes Etxebeste. Sarakoa, urtarrilaren 20an.

## HERIOTZAK

Marie Thérèse Treku. Senperekoa, maiatzaren 20an.

Danielle Françoise Vincent. Senperekoa, maiatzaren 20an.

Augustin Estekorena. Senperekoa, maiatzaren 19an.

Antonio Etxenike. Senperekoa, ekainaren 18an.

Gracie Lopez. Senperekoa, ekainaren 26an.

Franck Laurent. Senperekoa, ekainaren 29an.

Bengt Erik Edwall. Senperekoa, uztailaren 1ean.

Guy Jean Jacques Montin. Senperekoa, uztailaren 2an.

Marie Doyhenart. Senperekoa, uztailaren 18an.

Marthe Paulette Heroguelle. Senperekoa, abuztuaren 6an.

Joseph Estekorena. Senperekoa, abuztuaren 12an.

Jeanne Gabrielle Yanci. Senperekoa, abuztuaren 19an.

Jean Paul Batt. Senperekoa, irailaren 9an.

Maria Esperanza Etxenike. Senperekoa, irailaren 9an.

Jean François Emile Milanini. Senperekoa, irailaren 17an.

Ihintza Martiarena. Senperekoa, irailaren 16an.

Marie-Jeanne Belaunzaran. Senperekoa, irailaren 23an.

Charles Jeannou. Senperekoa, urriaren 4an.

Jean-Baptiste Arribillaga. Senperekoa, urriaren 15ean.

Marie Brave. Senperekoa, urriaren 21ean.

André Darrigol. Senperekoa, urriaren 30ean.

Cyrille Jacques Maurice Arrault. Senperekoa, urriaren 30ean.

Marie Martina Tapia. Senperekoa, azaroaren 7an.

Marie Louise Chauvigné. Senperekoa, abenduaren 4an.

Julen Billon. Senperekoa, abenduaren 6an.

Marie Jeanne Hiriart. Senperekoa, abenduaren 12an.

Magdalena Ansa Zabala. Aranokoa, urtarrilaren 27an, 81 urte.

Leon Larria Aire. Sarakoa, urtarrilaren 17an, 85 urte.

Clotilde Ramirez Feo. Elizondón, urtarrilaren 19an, 86 urte.

Julia Arkauz Lopez de Bikuña. Elizondón, urtarrilaren 20an, 87 urte.

Maria Serapia Hernandezena Irigoin. Arizkungoa, urtarrilaren 21ean, 91 urte.

Miguel Iraizoz Legarra. Elizondón, urtarrilaren 22an, 93 urte.

Emilio Agerrebere Bertiz. Arraiozkoa, urtarrilaren 24an, 94 urte.

Felicidad Portolas Ortas. Elizondón, urtarrilaren 24an, 95 urte.

Maria de los Dolores Belzunegi Meaka. Elizondokoa, urtarrilaren 25ean, 95 urte.

Maria Francisca Iroz Goiena. Arizkungoa, urtarrilaren 27an, 79 urte.

Jesus Maria Ugarte Ariztizabal. Elizondón, urtarrilaren 25ean, 70 urte.



**Jose Manuel SALDIAS KARRIKABURU**

1956/08/27

2004/02/17

*Beti gure bihotzetan egonen zara*

### ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza Arraiozko elizan eginen da otsailaren 20an, eguerdiko 12etan



## HERRI KIROLA

# Presidentea aukeratzeko hauteskunde prozesua ireki du berriz ere Federazioak

124.468 euroko aurrekontua izanen du aurten Nafarroako Herri Kirol Federazioak

A.A.

Urtarrilaren 22an egin zuen urteko ohiko batzarra eta berriz ere lehendakari berria hautatzeko hauteskunde prozesua onartzeko ez ohiko batzarra.

Ohiko batzarrean, iazko kirol balantzea eta balantze ekonomikoa aurkeztu eta onartu ziren. 2004an antolatutako ekitaldiem zerrenda, Nafarroako txapelketen xehetasunak eta emaitzak, lizentzia kopuruak eta ezarritako errekorren berri eman zen. Lizentzia kopuruari dagokionez, helduetan 214 lizentzia eta Nafarroako Herri Kirol Jolasetan 179 atera ziren iaz. Bortz marka berri ezarri ziren joan den urtean: arpana txapelketan Josebto eta Iñaki Barberenak, ingude altxatzen Xabi Sein igantziarrak 89 altxaldi egin zituen, kox-



Fernando Etxegarai beratarrak Nafarroako eta Euskal Herriko errekorra hobetu zuen joan den urtean.

kor biltzen Fernando Etxegarai beratarrak 5 minutu, 57 segundu eta 62 ehunekatotan egin zuen bere lana eta lasto altxatzen Iñaki Bereau igantziarrak 22 altxaldi egin zituen. Nes-

ken txinga eramate txapelketan ere, Ainhoa Mazkarianek errekor berria egin zuen.

Joan den urteko kontuak 8.953,18 euroko irabaziekin itxi zituen Herri Kirol Federazioak,

121.078,90 euroko gastuak eta 130.032,08 euroko diru-sarrerak izan baitzituen. 2005. urteko diru sarrera eta iteerrak, berriz, 124.468,38 eurokoak izanen dira. Urtero antolatzen dituen

Nafarroako txapelketa, torneo eta sariak antolatzeaz gain, dagozkion Euskal Herriko txapelketak ere antolatuko ditu Nafarroako Federazioak. Aurten, Segak kanporaketa, neska eta mutilen koxkor biltze txapelketak, neska eta mutilen arpana txapelketak eta aizkolari gazteen txapelketak eginen dira Nafarroan. Horretaz gain, aizkora eta arpanari buruzko liburuxka ere argitaratuko du Herri Kirol Federazioak.

Ez ohiko batzarrean berriz, lehendakari berria hautatzeko hauteskunde prozesuko egutegia berriz ere irekitzea onartu zen. Aitzinekoan ez zen inor aurkeztu eta oraingoan, lehendakartzarako hautagaiak aurkezteko epea otsailaren 8tik 10era izan da eta prozesua otsailaren 28a arte luzatuko da.

## HERRI KIROLA

## Lesakako Batzoki paleta goma txapelketen finalak

Lesakako Batzoki elkarteak antolatutako paleta goma txapelketen finalak jokatu ziren urtarrilaren 29an. Bigarren mailakoan, Aitor Oiartzabal lesakarrak eta Felipe Lizardi igantziarrak 30-14 irabazi zieten Jaurena eta Berho baztandarrei. Oiartzabalek eraman zuen finaleko pilotari onenaren saria. Lehen mailakoan, Etxegoien eta Zapiain gipuzkoarrek 30-28 irabazi zieten 20-25 irabazten joan ziren Santesteban irundarrari eta Imanol Tellexea lesakarrari. Peio Zapiain atzelaria izan zen finaleko pilotaririk onena.





## ARETO-FUTBOLA



ARGAZKIA: JONEN BARRI TELLETXEA

Doneztebeko Juanma Jardín ongi nagusitu zen herriko kiroldegian jokaturako finalean.

# Doneztebeko Juanma Jardín taldea garaile Baztan-Bidasoako areto-futbol txapelketan

4-1 irabazi zion finalean Elizondoko Goizalde Ostatuari

A.A.

Urtarrilaren 23an jokatu ziren Doneztebeko kiroldegian Baztan-Bidasoako XII. areto-futbol txapelketako azken partidak. Lehenik, hirugarren posturako lehia jokatu zuten Doneztebeko Titi Ostatuak eta Arraiozek. Doneztebeko gazteak aisa nagusitu ziren partida honean, 5 eta 1 irabazi baitzuten.

Ondotik, jokatu zuten final nagusia Doneztebeko Juanma Jardín taldeak eta Elizondoko Goizalde Ostatuak. Berdintasun handia espero zen, baina partida osoa baldintza-

tu zuten doneztebarrek partida hasi bezain abudo sartu zituzten bi golekin, Belarra eta Patxi-kuren bitartez. Honek, Juanma Jardinekoei gibelean espetzeko aukera eman zien eta kontraerasoan arriskua sortzeko modua izan zuten. Goizaldekoek nahi eta ezinean ibili ziren kasik partida osoan. Baloia ongi mugitu zuten, esperientzia soberan baitute baztandarrek, baina zirrikiturik ez zuten topatu doneztebaren gibelaldean eta gainera, bizkarra zaindu beharra zuten partida erabat ez erabakitzeke.

Bigarren zatia ere il-

do beretik hasi zen, baina gol aukera garbia goak izan ziren bi ate inguruetan. Hiru eta hutsakoa Jokin Apezetxeak egin zuen kontraeraso azkar batean.

Baztandarrek, dena galduta ikusi zutenean itsu-itsuan jo zuten erasora eta Aitor Azkaratek gol ederra egin zuen. Finala Doneztebe aldeira bideratua zegoen ordurako, baina elizondarrek ez zuten etsitzen. Goizaldekoen bigarren gol batek oraindik partidaren sartuko zituen gorriak, baina ez zen halakorik gertatu, aldeantzez baizik. Belarrak finaleko bere bigarren

gola eta Juanmakoen laugarrena egin zuen, finala eta txapelketa erabakiz, 4-1.

Finalaren ondotik, sari banaketa egin zen. Juanma Jardín txapel-dun, Goizalde bigarren, Titi hirugarren eta Arraioz laugarren. Horretaz gain, bertze sari ttikiagoak eta banakakoak banatu ziren. Juan Telletxea Juanma Jardíneko atezainak eraman zuen finaleko jokalaririk onenaren saria. Golegile nagusia Ziga-tako Patxi Barberena izan zen, atezainik onena Haizegoa Ostatuako Angel Urtxegi, erregularitatean Arraiozeko Age-

rrereberek eskuratu zuen eta kiroltasunaren saria Gartzainek.

Aipatu behar da aurtengo txapelketan erabaki direla hurrengo denboraldian lehen mailan eta bigarren mailan arituko diren taldeak. Honela, lehen mailan arituko dira Juanma Jardín, Goizalde Ostatuak, Titi Ostatuak, Arraioz, Haizegoa Ostatuak, Iru-ruta, Gartzain, Ematzu-play, Intza Ostatuak eta Ziga. Bigarren mailan beriz, Saskarrak, Xan-pale, Taska Olaetxea, Zubieta, Sasoi Eskabazioak, Menditxuri, Ezkurra, NARBARTETA eta Betti Ziroka arituko dira.

## Saridunak

### Txapel-dun

Juanma Jardín  
**Azpitxapel-dun**  
 Goizalde Ostatuak  
**Hirugarren**  
 Titi Ostatuak  
**Laugarren**  
 Arraioz

### Golegile nagusia

Patxi Barberena  
 (Ziga)

### Atezain onena

Angel Urtxegi  
 (Haizegoa)

### Erregularitatea

Agerrebere (Arraioz)

### Kiroltasuna

Gartzain

### Finaleko

### jokalaririk onena

Juan Telletxea  
 (Juanma Jardín)



# AGENDA

## egunez egun

### ZINEMA

#### BERA

Otsailaren 10ean «Maria Ilena eres de gracia» filma ikusgai Kultur Etxean, 20:30etan.

### KONTZERTUAK

#### BERA

Otsailaren 19an Berako AMEBA eta Oreretako HOLT taldeek kontzertua eskainiko dute Kultur Etxean 22:30etan.

Otsailaren 26an txistu kontzertua eskainiko du YOKU taldeak Alzateko elizan, 19:45etan.

### LESAKA

Otsailaren 24an flauta kontzertua Herriko Etxeko pleno aretoan, 18:30etan. Lesakako Musika Eskolak antolatua.

### ELIZONDO

Otsailaren 11n «Mala Vela» taldea Lur tabernan.

Otsailaren 18an «Neubat» taldea Lur tabernan.

Otsailaren 19an «THC» taldea Lur diskotekan.

### IKASTAROAK

#### LESAKA

Otsailaren 12tik ekainaren 4ra larunbatetan hamabostean behin sendabelar ikastaro teoriko-praktikoa, 9:30etatik 13:30etara. Laura Gurbindo irakasleak emango du eta mendira ateraldiak eginen dira sendabelar desberdinak ezagutu ahal izateko. Izen ematea eta informazio gehiago 012 Info-Local zerbitzuan.

### BERA

Otsailaren 12tik ekainaren arte Toki-Ona kiroldegian Kenpo-kai arte martzialaren ikastaroa izanen da, larunbat goizetan, hiru taldetan banatuak: 6-14 urte, 14-18 urte eta 18tik goikoak. Xehetasunak 9. orrian.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## IGANTZIKO AGUSTIN SAINZEN ESKUTIK Aitzinako tresnen bilduma ortziraleko erreportaian

Gaur den egunean objektu zahar eta aitzinako tresna guztiak baztertu edo bota, eta gauza berriak erostea aski normala da. Iragana museotako kontua bakarrik da aunitzentzat. Trasto, tramankulu eta objektu zaharrek ez dute lekurik izaten gure etxeetan eta gauza berriak bakarrik egiten diegu tartea. Edozein moduz, badira hainbat arrazoiengatik hori egiten ez dutenak eta "antiguedadeen" bildumak egiten hasten direnak. Normalki ez dira hagitz ezagunak izaten eta aunitzek errotzat hartzen dituzte, euren afizioari eskaintzen dioten dedikazioa ez dutelako ulertzen. Agustín Sainz Igantziarra da

horietako bat. 13-14 urterekin hasi zen gisa guztietako objektu zaharrak altzaten eta orain milaka eta milaka gordetzen ditu etxean. Nekazaritzako erremintak, sukaldako tresnak, disko eta aldizkari zaharrak, joareak, plantzak, elizako tresnak, kutxak, irratia, erlojuak... zerrenda akautuezina da. Joseba Olagarai lankidea bere etxera hurbildu da eta ortziral honetako erreportaian altxor etnografiko ikusgarri hori erakutsiko digu. Ez galdu, ortziraletan, albiste-giaren ondotik, Ttipi-Ttapa telebistan tresna zahar hauek ikusteko eta bere garaietan izan zuten erabilaren berri jakiteko modua.

### DVD



Honatz, azkenik, euskal eskenak eman duen taldetik ero, ipurterre eta alaienari buruzko erreportaje sakona: Kojon Prieto y los Huajolotes, korridoak eta ranxerak abesten zituen taldea, nahiz eta jarrera aldetik punketik aunitzez hurbilago egon mariabotik baino. DVD honek hainbat elkarrizketetan euren ahotik kontatutako taldearen bizipenak agertzen ditu, eta zuzenean emandako zenbait kantuekin osatzen da. Gehigarri gisa DVD honetan taldearen argazkiak, Jokin Larrea taldekide oihak eginiko Huajoloteen ibilerak kontatzen dituen komiki bilduma, Manu Chaok euren hirugarren diskoaren grabaketan egindako kolaborazioaren irudiak eta hiru bideo-klip sartu dira, baita karaokea, abestiok kanta ditzazun. Informazio andana, naparmexaren erregeen ibilbidea memorian gera dadin.

## BASERRIA

Datu iturria: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Urtarrilaren 21tik 28ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



Zerrikumea  
(19 kilo): 36,00 € (+1,00)

Zerri gizona  
0,985 € kilo. (-0,010)

Zerramak:  
0,500 € Kg/bizirik. (-0,020)

### BEHIKIA



Aretze gizenak:  
Idixkoak: €/kg. Kanal  
Extra 3,51 (+0,03)  
1.koa 3,31 (+0,03)  
2.koa 3,18 (+0,03)  
Urruxak: €/kg. Kanal  
Extra 3,61 (+0,03)  
1.koa 3,44 (+0,03)  
2.koa 3,25 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
Aretze tikiak  
(15 egun ingurukoak):  
Aretze mestizoak:  
umuxak 228,00 (=)  
idixkoak 245,00 (=)

Aretze nabarrak:  
umuxak 180,00 (=)  
idixkoak 205,00 (=)  
Zaldikoak: €/k  
Sortuberriak: 2,98/3,04  
Zaldi-behorak: 1,79/1,99  
Bildotsak: €/k  
6-8 kilokoak: 4,70 / 5,00  
8-10 kilokoak: 3,60 / 4,10



JAKIN BEHARREKOAK

# Gatazken negoziazioa bikotearen barnean

Biek irabazteko jarrerarekin hasi behar dira solasaldiak

Zenbat alditan hasi zara zure bikotearekin eztabaidan txorakeriarik handienarengatik eta egunetan solastu gabe akautu? Behin baino gehiagotan, seguru. Eztabaidatzerakoan ez garelako arazoan zentratzen gertatzen da hau, aitzinetik datozen gauzak ateratzen ditugu, gordean ditugunak... eta zenbait «arau» ez ditugu kontuan hartzen.

Bikotearen barneko gatazka bat moldatzeko lehenbiziko pausua gatazka badagoela heldutasunez onartzea da, harremanean «zerbait» ez dagoela ongi eta egoera horrerik aurre egin behar zaiola, soluzioak bilatzeko. Bertzenaz, bikote aunitz gatazka bukaezinetan sartzen dira, botere-borrokari burutu arte hondatzen direnak. Gatazkari aterabidea bilatzeko urrats batzuk segitu behar dira:

- Bikotekide bakoitzak bere aldetik, negoziatzera jarri baino lehen, garrantzitsuak iruditzen zaizkion puntuak eta bere usiez arazoak zein diren zehaztuko ditu.
- Negoziatzeko leku eta une



Negoziatzeko leku eta une egokiak aukeratu behar dira.

egokiak aukeratu (une eta leku txarrak dira otorduak, haurrekin daudenean, pribazitatea segurtatzen ez duten lekuak...).

- Bakoitzak bere ikuspuntua azaldu.
- Ez insultatu.
- Posible diren soluzioak agertu eta errealistena eta praktikoena aukeratu.
- Aukeratutako soluzioa aplikatu eta denbora bat esperatu funtzionatzen duen edo ez ikusteko. Ez badu funtziona-

zaten, beharrezko egokitzapenak egin.

- Akordioak bete.
- Pausu hauek emateko ideia batzuk garbi izan behar dira:
- Akordioetara ailegatze prest egon behar da.
- Ez hasi negoziatzen «nik irabazi-zuk galdu» jarrerarekin.
- «Biok irabaziko dugu» jarre-rak balio du negoziazioan.
- Garrantzitsua: Negoziazioan eman eta hartu egin behar da.

Rakel AMIGO  
Bortziritako Gizarte Zerbitzuak

SOLASALDIAK

LESAKA

Otsailaren 15ean «Bullying» gaiari buruzko solasaldia eskainiko du Ruben Belaundiak Kasinoan 19:00etan. Antolatzailea: Otxogorrienea Guraso Elkarte.

Otsailaren 25ean Txingudi Bizirik Plataformaren eskutik Erraustegiari buruzko solasaldia Kasinoan 19:00etan.

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Otsailaren 13an Mondarrainera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak.

Otsailaren 20an Alkozera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak.

FERIAK

ELIZONDO

Otsailaren 12an Baztango Merkatue egingen da Merkatu Plazako gorapean, 10:00etatik 14:00etara. 14 janari ekoizleak eta eskulangileak hartuko dute parte.

ERAKUSKETAK

LESAKA

Otsailaren 14tik 26ra «Galizia beltza, Terra ennegrecida» argazki erakusketa Beti Gazte elkarteak, astelehenean lanunbatera 18:30etatik 20:30etara. Argazkilariak: Ander Gilenea eta Josune Martinez de Albeniz.

OSPAKIZUNAK

SARA

Otsailaren 12an auzapezak eta kontseiluak erretretan dauden saratar guziak gonbidatzen dituzte Omordian 12:30etan egingen den tripobx jatera. Izenak Herriko Etxean eman.

LIBURUAK



Atzoko eta gaurko harresiak

Asier BLAS

TXALAPARTA 2004

Utopiez mintzo da liburu hau: mundua aldatu nahi zuten komunisten utopiaz; hauen buruzagiek sortutako utopia erre-afaz; estalinisten iruzur eta hilketei aurre egin zieten utopiaz; estatuak baztertutako nazio eta hizkuntza gutxituen utopiaz. Berlingo harresia erori eta hamar urte beranduago burututako bidaia da honekoa. Baina ez da bidaia fisikoa bakarrik, izan ere, honen kontakizuna aitzakia bihurtzen da Europako Ekialdeko zenbait

atal historiko gogora ekartzeko, eta alde honetako herri eta hizkuntzak ezagutzeko. Tartean, egungo egoera soziala eta politikoa diti hizpide, baina, bereziki, *demokrazia berriak* sortutako etsipen eta frustrazioaz mintzo da bertako ahotik. Asier Blasen lehen liburua da, nahiz eta Aramaio-ko IV. Sagitario Saria, Bidaia-ri Handien literatur lehiaketan epaimahairen aipamen eta sari berezia jaso 2001ean *Gaueko* espresoak idazlanagatik.



00-34 **948 63 54 58**Zure honetan argazkia jartzeko 7 € ordaindu behar da.  
Ttipi-ttapa sarean sartu aurretik 34 (1)241 ikusgai gero argazkiaren  
7 €. Hurrengo aldizkari 3000 COBO 03 0703304028. Hurrengo sarritan  
sarean sartu behar duzu argazkiaren irudia.**...ETA GAINERA,  
ZURE BERRI  
ESKUALDEKO  
ETXE GUZITAN  
IZANEN DUTE!**Zure honetan partikular,  
profesional eta merkatarien  
informazio eta zerbitzuen berr  
ematen da. Ttipi-ttapa ez du  
bere gain hartzen argitaratuak  
diren argazkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen  
erantzukizunik.**ETXEBIZITZAK**

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Ebe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

- 801. Agurrak

**ADOS**

- **ELIZONDO.** - 2. eskuko pisuak salgai.
  - Erakuntza berriko pisuak salgai.
  - **DONEZTEBE.** - Erakuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai.
  - Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
  - **BERA.** - Pisu pare bat salgai.
  - Terrenoak erosten dira.
  - **LESAKA.** - 2. eskuko pisu pare bat salgai.
  - **ARANTZA.** - Ebe bat salgai.
  - BAZTAN-BIDASOAN** baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
- 948 451 641 / 948 500 708 / 607 878 556

**ETXEBIZITZAK****101 Saldu**

**BERA.** Kiroldegiaren ondoren pisua salgai. Hiru logela, sukalde eta komuna berriak, egongela eta trasteroa. Bajera ere badu nahi izanez gero. ☎ 661 931727.

**DONEZTEBE.** Pisua salgai, igerilekuaren ondoren. ☎ 948 450779.

**BERA.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai Legia kanikaren 19an. Sukaldea, 3 logela, 2 bainu eta komedorea. Igogailuarekin eta garajearekin. 12 metro luzeko balkoia. ☎ 652 725397.

**ELIZONDO.** Pisu bat saltzeko Santiago kanikan. ☎ 948 581030 edo 679 751429.

**ETXEBIZITZAK****103 Errentan eman**

**LEITZA.** Pisua errentan ematen nuke. Igogailuarekin. ☎ 948 510277.

**ZARAUZ.** Ebe bat errentan ematen da. Astebukeroak, zubiak, etab... Hondartzatik gertu. ☎ 669 014349.

**GARAJEAK/LOKALAK****109 Errentan eman**

**LESAKA.** Txirula lorendena errentan ematen da. ☎ 948 627542.

**BERA.** Garajea argiarekin

**LESAKA**

**Txirula lorendena errentan ematen da.**

Tel.: 948 627542

Agerian errentan ematen da. ☎ 943 523784.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
**110 Errentan hartu**

**LESAKA.** Bajera, bulegoa edo denda beki bat errentan hartu edo erosiko nuke. ☎ 609 477277.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
**111 Bertzelakoak**

**LESAKA.** Ileaingandegia eskualdatzen dugu, toki onetan eta sartzeko prest. ☎ 670 218232 edo 652 746800.

**LANA****301 Eskariak**

**Emakume** penuria, paperekin, eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ 618 969461.

**Neska euskalduna** eskaintzen da maiatzetik aurrera kamarera edo bertze edozein lan egiteko. ☎ 650 772171.

**Emakumea** eskaintzen da adinekoa edo haurrekin zaintzen edo ostalaritzan lan egiteko, internu edo externu moduan. ☎ 619 479712.

**Emakumea** esperientziarekin eta paperekin eskaintzen da adinekoak zaintzen, garbiketan edo ostalaritzan lan egiteko, baita bertze lanetan ere. ☎ 620 445281.

**Senar-emazteak** kobaxarekin eskaintzen dira granjan edo ostalaritzan lan egiteko, berdin bertze lanetan. ☎ 620 455281.

Baztan-Bidasoako sagardotegiak

**LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA**

Txotx denboraldi irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA  
Telleria auzoa • LEKAROZ  
948 452121 • 626 494317

LINDDURRENBORDA  
Nabaz auzoa • LESAKA  
948 637212

**LANA****302 Eskaintzak**

**Pertsona bat behar da** zurgindegi batean lanean aitzeko. Esperientzia badu hobe. ☎ 948 451906-689 531012.

**Igeltsero** autonomo bat behar da lanean aitzeko. ☎ 607 750425.

**BERA.** Jateke batean sukaldaria laguntzailea behar da, gogoekin eta ardurekin. ☎ 650 831392-948 631584.

**BERA.** Benta batean zertifikaria eta sukaldaria behar dute. ☎ 619 829289.

**IRUN.** Sagardotegi batean neska euskalduna behar da. Esperientzia baldin badu hobe. ☎ 659 285620.

**Frantses** ptxa bita dakien neska bat eta mutil bat behar dira, sei hilabetez lan egiteko. ☎ 948 630794 (gauzez).  
**Mantenimendua,** elektrizistak, iturginak, soldatzailak, zurginak... Erakunde publikoetan lanpostuak libre. Informazioa doan. ☎ 948 199595.

**Administrari** laguntzaileak. Udaletxetan abudo sartzeko: Iruña, Berriozar, Berriplano, Lizama, Fitero, Bur-

**Lan bila zabilta?****LAN ESKAINTZA****ETXEZAINAK**

Atezainak, zaindariak. Udaletxetan abudo sartzeko. Informazioa doan.

**HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK**

Haur eskolek bete behar dute: haur zaintzaileak, hezitzaileak. Informazioa doan.

**LAN ESKAINTZA****SUKALDARI LAGUNTZAILEA**

Sukaldariak. Osasunbidean abudo sartzeko. Informazioa doan.

**NAFARROAKO FORUZAINGOAK**

85 postu libre. Udaletxetan abudo sartzeko. Informazioa doan.

Presta zaitetz. Informazioa doan.

**948 199 596**



lata. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Ostalaritza**, sukalde laguntzalea, sukaldariak, kamareroak. Lanpostu libreak ikasteko, erresidentzia, Nafarroako Gobernua... Informazioa doan. ☎948 199596.

**Gidariak**, Abudo sartzeko udalebetan, Nafarroako Gobernua, Informazioa doan. ☎948 199596.

**Nafarroako Foruzaingoa**, 50 lanpostu libre. Abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Hautzaindegia publikoak** beto behar dute: haur zainzaleak, hezitzaileak. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Garbitzaileak**, Lanpostu libreak erakin publiko, erresidentzia eta udalebetan. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Eralkuntza**, igeltsuak, peoiak. Udalebetan abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Harreragileak**, Lanpostu libreak turismo bulego, erakunde publikoetan. Informazioa doan. ☎948 199596.

**Laborategia**, Postu libreak NUPen. Informazioa doan. ☎948 199596.

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

Renault Laguna 2.0 autoa salgai, NA-AK matrikuladuna. 175.000 km. ☎647 417700.

Ford Mondeo TD autoa salgai, NA-AP matrikuladuna. Hain egokitu, ibilera zentralizatua eta kristala igotzekoa elektrikoa. Egoera onean. ☎626 451956.

Quad motoa salgai. 350 cc, extrekin eta egoera onean. ☎650 064912.

Renault Express 1900 Diesela salgai, 8 urtekoa. ☎607 227304 (gaurerari).

Iveco Turbodayll 4910 furgoneta salgai. NA-AM ma-

## IMPORTAZIO IBILGAILUAK

AUXI  
BMW  
MERCEDES  
VOLKSWAGEN  
ETA BERTZE MARRAK  
beste gaitasun:

[www.remontkar.com](http://www.remontkar.com)

besteko informazioa:  
**info@remontkar.com**

trikuladuna. Egoera onean. ☎678 860244-647 773124.

Suzuki Santana salgai. Egoera onean. ☎943 631936 (deitu gaurerari).

MG ZR 160 autoa salgai, 2003. urtekoa, 18.000 km. ☎667 848832.

Volkswagen Golf IV autoa salgai, 115 cv. 6 abiadura. ☎678 441263.

### ANIMALIAK

#### 601 Emateko

Katukume zoragarriak emateko, hiru hilabeteak. ☎948 637213.

### TALLERES SANTESTEBAN

☎948 450282 • DONEZTEBE  
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA  
(6-10 HILABETEKOAK)

3000 € 1300 € (DOLMEÑE) 1150 € (OLAJUKA)  
1900 € (DOLMEÑE) 1100 € (DIARRIGO) 1300 € (DIARRIGO) 1300 € (DIARRIGO) 1100 € (DIARRIGO)

### SAMPI ARAGON ZOANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu.

### MENDAUR MOTOR

☎948 493333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:  
Peugeot 2001 (Autoa), Renault 5 (Autoa), Opel Corsa (Autoa), Opel Corsa (Autoa), Peugeot 405 (Autoa), Opel Astra (Autoa), Renault 5 (Autoa), Renault 5 (Autoa), Suzuki (Autoa) ETA BERTZE ALKIBAN.

### ANIMALIAK

#### 602 Salerosketak

GOIZUETA. Hiru bezatu gazte beren migekin salgai. ☎680 613474.

Behorra emari salgai, hispano-arabe arrazakoa eta hamar urtekoa. Zortzi hilabete behoka hispano-anglo-arabe hiru odolokoa salgai. Gozoak eta biek oso merke. ☎645 395609.



## BAZTANGO UDALA

### Administrari laguntzale bat oposizio-lehiaketa bidez aldi baterako hartzeko deialdia

#### BALDINTZAK

- Graduatu eskolarra edo baliokidea
- Euskara menperatzea: Administrari zereginetan euskara gaitasuna bai ahoz zein idatziz.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana edukitzea (langabetu edo enplegu hobekuntza bezala).

Curriculum dokumentatua Baztango Udalekian utzi behar da **otsailaren 14ko 13:00ak baino lehen**.

Informazio gehiagorako deitu **619 829 289** telefonora.

Baztango Udaleko bulegoetan deialdia jaso dezakezue.

Bi ahare mutur gorri salgai, bat urte batekoa eta bertzea bi urtekoa. ☎948 451696 (21.000€atik aitzinera).

Bi ahare mutur gorri salgai, bi urtekoak. ☎948 451504.

### DENETARIK

#### 702 Salerosketak

Eskudradora tupi salgai. ☎680 986836.  
Warwick Extreme baxu

elektrikoa saltzen dut, 5 soka, pieza bakarrekoa eta peltatik bikoizki aktibatuak ditu. Prezioa: 1.200 euro, negoziagarria. ☎687 401212.

Haritz amerikanoak sartzeko, bi eta hiru udakoak. ☎948 580870.

Sukaldeko altzari, sukalde industriala eta marmolezko mahaia salgai. ☎948 585036.

## KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

**PUBLIZITATE AGENTZIA**  
Iragarkiak irrati, telebista eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen antolaketa eta gestioa.

**DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,  
ZERBITZU INTEGRALA**

Andutzeta 12  
31760 ETXALAR  
(0034) 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi-net](mailto:kulturkari@ttipi-net)



■ ALDIKARIAK

■ BILUZITATEKOAK

■ FOILETOAK

■ LIBURUAK

■ TARTELAK

■ LOGOTIPOAK

■ FAKTURAK

■ KARTELAK

■ ...



Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**ANE TELLETXEA IGOA** lehenak 4 urte beteiko ditu otsailaren 11an. Aurriz urtez eta muzu bat Leire, Aitor eta bereziki Oihoren partetik.



**KATALIN BERASAIN GOIA** berstenak 3 urte bete ditu otsailaren 6an. Zorionak Ane, Amate, amofia eta famili gutxiaren partetik. Zorionak preziosak!



**MAIALEEN SEIN IGOEHEN** berstenak 2 urte bete ditu otsailaren 4an. Aurriz urtez atxa, ama eta Feloren partetik.



**PANTXIKA BALLARENA** elizondemak 3 urte bete ditu otsailaren 3an. Zorionak atxa, ama eta familiaren partetik.



**IKER IMIARTE** lehenak 5 urte beteiko ditu otsailaren 15ean. Aurriz urtez Irati, atxa eta amaren partetik.



**LEITZOKO IBAN ALDUNTZIN AZKARATEK** urte bat bete du otsailaren 5ean. Zorionak eta muzu potolo bat Oihoren partetik, txibito txibitoak zureak!



**IZARO ETXEPARE ELNIO** berstenak urte bat beteiko du otsailaren 21ean. Zorionak eta muzu handi bat Olatz, Jone eta familiaren partetik.



**NEREA (MOKO)** berstenak 14 urte beteiko ditu otsailaren 14an. Aupa ei Gure, aurriz pidea!



**ANE TELLETXEA IGOA** lehenak 4 urte beteiko ditu otsailaren 10an. Zorionak gure neska handiari Harizpeko familiaren partetik eta muzu bat Pello anaren partetik.



**AITOR ORTIZ ARIZTIMUNO** lehenak 18an 3 urte beteiko ditu. Zorionak eta muzu handi bat Koro, Xabi eta bereziki Iratzen partetik.



**IRAIA MARTINDRENAK ARIZTIMUNO** lehenak 12an urte beteiko du. Zorionak guraso eta atxona eta amonaren partetik. Ongi pasa eguna.




**MARI TXU BALEZTENA** eta **IRAIA MARTINDRENAK** otsailaren 12an eta 10ean urteak beteiko dituzte. Zorionak eta muzu pila bat familiaren partetik eta bereziki Iratzen partetik.



**UXUE ITURRIZA RAZKIN** atxak 9an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muzu handi bat Oier, Marisol, ama eta atxaren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILU TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**



ttipi-ttapa  
Andutzeta, 12  
31760 ETXALAR

# Oihangintza

oihangintza • oihangintza • oihangintza

**BEKO**  
Lore eta landareak  
**Fruitondoetan ankera zabala**  
Free phone - 112004 - tel. 948 637078

**BAXERRI**  
Lorategien zainketa  
Mendiko lanak  
616 243 530

**JOHN TELLETXEA MAYO**  
Lorazaintza  
NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA  
Bittoria 4, 2. esk.  
Lesaka  
Tel. 948 627561  
Mug. 619 416683

**Iturriza**  
lorazaintza  
666 40 72 14 • 948 63 11 99  
Hegoalde 33, 2. esk. • BERA



**KIMAKETA BEREZIAK**



Publizitatea prentsan,  
irratian eta  
telebistan.

Publizitate kanpainen  
antolaketa eta  
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,  
ZERBITZU INTEGRALA



LIBURUAK



ALDIZKARIAK

BUZOIRATZEKOAK



FOILETOAK



# Toki Ona Institutua



**EFQM**



**AENOR**  
Asociación Española de  
Normalización y Certificación

EXCELENCIA EUROPEA

Egiaztagiriaren zk: AENOR/CE/0002.03



Bureau Veritas Quality International-ek hauxe egiaztatzen du: aipatu hornitzeile  
horrek duen Kudeatzeko Sistema ikuskaturik dagoela eta indarreko arauarekin  
bat datorrela:

Certificado ISO 9001 por

**BVQI**

**ISO 9001:2000**

Egiaztagiriaren zk: ESPMDD003930

# 2005/06 Eskeintza: DBH Batxilergoa Lanbide Heziketa



Eztegara Pasalekua, 34 – BERA

☎ 948625000 📠 948625032

Posta elektronikoa: [iesbera@pnte.cfnavarra.es](mailto:iesbera@pnte.cfnavarra.es)

Web orria: <http://www.pnte.cfnavarra.es/iesbera>

